



# ARGIA

MARTXELO OTAMENDI

***“Estatuak babes osoa ematen die torturazaileriei”***

14-19. orriak

#2.834 | 2023 / 07 / 23 | 4,00 €



**Suteei aurre egiteko auzolana Nafarroan**

24 | ERRIGORA



**Ekofeminismoa bidea egiten ari da Euskal Herrian**

34 | HERRI MUGIMENDUAK



**Badator euskarazko 'stand-up'aren olatua**

42 | KULTURA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #287  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



# INTSEKTOEN APOKALIPSIA

[ARGIA.EUS/LARRUN](http://ARGIA.EUS/LARRUN)



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



## Iritziak

- 20 | KARMELO LANDA
- 21 | J. IGNAZIO ANSORENA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | ROSER ESPELT

## Finkoak

- 29 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 47 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MAIA ANSA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



FOKU / ANDONI LUBAKI

### 24 | SUTEEI AURRE EGITEKO

Aitor Gurrutxagak zenbakitara ekarri ditu iaz suteek Nafarroan eragindako kalteak. Geroztik Errigorak abiatutako diru-biltze eta prebentzio lana azaldu ditu, eta elkarrizketatu dituen adituek salatu dute Nafarroako Gobernuak ez duela suteen aurkako politika eraginkorrik egiten. Abeltzaintza eta herri txikiak sustatzea gako dira suteei aurre egiteko.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Artikoan izotzen urtzeak zabor erradioaktiboak ere barreiatuko lituzke

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | MARTXEO OTAMENDI

### “Zuzendari berriak orain arte izan ez duen kalitate mailara eramango du Berria”

Miel A. Elustondo

30 | EUSKARA | ANIK NANDI

### “Uste zen hizkuntza sartzen bazenuen hezkuntza sisteman jendeak hitz egingo zuela, baina ez”

Cira Crespo

34 | GIZARTEA | EKOFEMINISMOA

### Euskal Herrian ere lurreratuz doan mugimendua

Jenofa Berhokoirigoin eta Estitxu Eizagirre

42 | KULTURA | STAND-UP-AREN OLATUA

### Apurretik aparrera

Lander Arretxea

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartziandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
 komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
 SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
 SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA



# Bakarrik edo

Irudi honek munduari buelta eman dio hedabide askoren lerroburuetan ala sarean meme bihurtuta. Batzuek baliatu dute Ukrainako presidentearen bakardatea irudikatzeko, ez baitute NATO n sartzera gonbidatu. Hori bai, armak nahi beste. AEBak berriro Europara begira jarri zirenetik, inperialismoaren helburuak agerikoak dira eta horretarako Ukrainako gerra eta ukrainarrak tresna ezin hobe. NATOren Lituaniako gailurraren ondorioetan argi utzi dituzte helburuak: militarismoa hedatzea –herrialde guztiek, gutxienez, BPGaren %2 horretarako bideratu behar dute–; neutralitateari eta errefuxiatu politikoei begikortasunari agur –horren ikur izan denak, Suediak, bi mende eta gero, men egin du–, eta gainera estatu etnozida baten mesedetan. Turkia Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko kidea da, nahiz eta ez izan Atlantikoko ez iparrekoa; eta Europakoa ez izanda ere, Europar Batasunera batzea gertuago du Erdoganaren autoritarismoak. Eta, azkenik eta nagusiki, helburu nagusia berretsi dute: AEBen hegemonia ezbaian jartzen duena, Txina, berriaz mehatxatu dute.

 YVES HERMAN / REUTERS  AXIER LOPEZ







# Euskararen aurkako “olatu erreakzionario eta euskarafobia” salatu dute

**AITOR GURRUXAGA MUÑAGORRI**

**E**uskalgintzaren Kontseiluak deituta agerraldia egin dute Bilbon, Espainiako Konstituzio Auzitegiak EAEko Udal Legearen aurka emandako epaia salatzeke. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate, udal hautetsi eta uskalgintzako ordezkariak bildu dira, eta euskararen aurkako “oldarraldia” salatu dute.

Erandioko administrazioa euskalduntzearen aurkako epaia, Uliazpi Fundazioaren lan-deialdiaren aurkako sententzia, Barakaldoko udalak enpresa pribatuei euskara-eskakizunak jartzeko ezintasuna, Irungo udaltzainena eta Laudioko kasuak izan dituzte hizpide, gertatzen ari dena “oldarraldi judiziala” dela erakusteko.

Agerraldian bildu direnek kezka bizi dute egoera: “Oldarraldi honen agerpen mediatikoak eta politikoak aspalditik ezagunak bazaizkigu ere, azken boladan gordintzen joan dira, bereiziki, alor judizialean”. Haien esanetan, euskararen

**Milaka herritarren  
bizitzen bizigarritasuna,  
berdintasuna,  
justizia eta kohesio  
soziala auzitan daude**

normalizazio prozesua trabatu eta egin-dako bidean atzerapausoak eragin nahi dituen “olatu erreakzionario, atzerakoi eta euskarafobia” gertatzen ari da.

Salatu dute udaletan ordezkariarik ez duen Vox alderdiak jarritako helegitearen ondorioa dela EAEko Udal Legearen aurkako epaia. Helegite horren ondorioz eskatu zion EAEko Justizia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Salak Espainiako Auzitegi Konstituzionalari ebazpena emateko legearen kons-

tituzionaltasunaz. Toki-erakundeek beren jarduna euskaraz egitea ahalbidetzen duen legea (6.2 artikulua), 1982ko Euskararen Legea baino kontsentsu zabalagoarekin onartu zela gaineratu dute.

## MOBILIZATZEKO DEIA

Mobilizazio sozialari lehenatasuna emateaz hitz egin du Kontseiluak: “Gizarte eragileoi dagokigu desadostasuna kaletan erakustea. Bada garaia urrats bat aurrera egin, euskararen gaia erdigunean jarri eta elkarrekin eragiteko; izan ere, epaitegietako erabakiek atzerapauso handiak eragin ditzakete”.

Hori dela eta, euskararen eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen alde dauden eragile eta norbanakoei azaroaren 4an Bilbon egingo duten manifestazioan parte hartzeko deia luzatu die Kontseiluak. Milaka herritarren bizitzen bizigarritasuna, berdintasuna, justizia eta kohesio soziala auzitan daudela salatzeke probestuko dute manifestazioa, besteen artean.

## EPAI EUSKARAFBOEK EZ DUTE ETENIK

Agerraldia egin den egun berean, ordu batzuk geroago, jakin da berria: Jaurlaritzaren lan poltsetako euskararen eza-gutza irizpideak atzera bota ditu Rosa Esperanza Sanchez Ruiz-Tello epaileak. Sanchez Ruiz-Tellok atzera bota du euskararen 3. eta 4. hizkuntz eskakizunak exijitzea lan poltsa horiek eratzeko prozesuan.

Zehatz adierazteko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Sailaren 2021eko apirilaren 22ko Aginduari eragingo dio erabakiak. Horren bidez, EAEko toki administrazioetako idazkari-kontu-hartzailen deialdia egin zuen, Bizkaiko toki administrazioetan Espainiako Estatuko hautagaien zat gordetako lanpostuak betetzeko. ●





# Harridura hori



UXUE APAOLAZA LARREA

Oskar Matuteren astea izan da Espainia aldean, eztabaida politiko batean, ultraeskuindarrak bati emandako erantzunaren harira. Ultraeskuindarrak, Miguel Ángel Blanco gogoan, deklamatu zuen ez zekiela Matutetek berak parte-hartzeren bat eduki ote zuen ETArek hilketaren batean. “Ni Ermuan nengoen, bijilia batean, Miguel Ángel Blanco hil aurreko gauean, eta Miguel Ángel Blanco aska zezaten eskatzen ari nintzen, Ermuan. Ez dakit zu non zeunden”.

Harridura izan da hitza, harridura EH Bilduko hautagai batek hori esan duelako. Elkarrizketatu ere egin dute horren harira. Zer da harritu dituen? Bai, karikatura: “Nola? Ezker abertzaleko alderdi batean ETA egiten ari zenarekin desados zegoen bat? Kontrakotasuna adierazi egiten zuen bat?”. Baina uste dut badagoela beste harridura bat, idiota politikoz inguratuta bizi garenez: zintzotasun politikoa-rena.

Oso gogoan dut Oskar Matute Gasteizko Hikatenean, duela urte asko, unibertsitatean nenbilela (bakoitzak bere *crush*-ak izan ditu). Eta orduko hura errekonozitzen dut oraingoan, bilakaerak bilakaera, aurrean zuena zena izanda. Eta nola daiteke une jakin batean hain urrun egondakoak alderdi berean egotea, eta, gainera, lehen heltzen zituzten hariak eten gabe? Ba, besteak beste, denak, batzuetan, irensten. Sakoneko printzipioei fidel izateko ahaleginean egiak findu egin behar izaten dira, karikatura emozional batzuk otzandu. Eta badauzkagu jokoan printzipio batzuk. Eta txintxokerien garaian, harritu egiten du batzuen zintzotasun politikoa; eta besteak beldurra ematen dute. ●

AURREIKUSPEN  
DEMOSKOPIKOEK  
ESANGO DUTENAREN  
AURREIKUSPENIK?



ADUR

## Tortura

Juan Calvoren heriotzagatik kondenatutako ertzainen inguruko informazioa eskatu dio EH Bilduk Jaurlaritzari legebiltzarrean, ARGIAk kasuaren inguruan hainbat datu berri azaleratu ostean. Calvo Ertzaintzaren Gasteizko Arkautiko komisarian hil zuten, duela 30 urte.

## Kazetaritza

Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak “Kazetaritza eta elkartzuna ez dira delitua” komunikatua zabaldu du, ARGIAk argitaratutako elkarrizketa baten aurka Solway multinazionalak egindako eraso gaitzesteko. Bat egin dute 40 eragile sozial, gehiengo sindikal eta ezkerreko alderdi politikok.

## Euskara

Herrien frantsesezko izenak ezabatu dituzte dozenaka seinaletatik. Iaz Euskarazko panelak frantsesezkoen gainetik jarri zituzten, euskara lehenesteko ekintza sinboliko gisa. Aurten, Ipar Euskal Herriko hainbat herriren frantsesezko izenak ezabatu dituzte, espraia erabiliz.

## EKONOMIA

# Konfrontazio sindikalak emakume aurpegia aurten



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**B**atetik KPIaren gorakada dago, eta bestetik marra gorri bat, negozioazio kolektiboaren bilakaeraren erabakigarriak diren sindikatuek jarritakoa: eros ahalmenik ez galtzea. Eta argazkia osatzeko gobernuak eta patronalak daude, soldatak hobetzearen kontrako diskurtso eta jarreraren bat eginda. Zaila zen aurreikustea urtea hain oparoa izango zenik hitzarmen sinaduran, baina hala izan da. Hori lortu da konfrontazioari ihes egiten ez dioten sindikatuen ekimenez antolatutako langile borrokari esker.

Osakidetza-erantzak azpikontratatu-rik lan egiten duten garbitzaileen akordioa izan da azkena. Ehun eguneko borrokaldira luzeak behartu du akordioa; EAEko osasun sailaren gainetik pasata egin dena, gatazkak botere publikoaren esku hartzea eskatzen zuen arren, zerbitzu publiko batean funtsezko jarduera delako. Berrero ere, gatazka luze eta gogorrek egiteko gaitasunaren eta prestutasunaren emaitza izan da hitzarmena, sindikatuen aldetik txalotzekoa eta feminismitik aldarrikatzekoa, emakumeak izan direlako protagonista.

Langileen poza eta harrotasuna konpartitzen egingo diren kurto bukaerako balorazioetan, aurrera urratsak zerrendatzeko eta azpimarratzeko aukera izango da beraz. Baina erantzun kolektibo eta sendoak eskatzen dituen galderak ere utzi dizkigu: zergatik luzatzen dira gehiago gatazkak sektore feminizatuetan? Nola egin gatazkaren zama eta ardura osoa baldintza prekario erabatekoan lan egiten duten emakumeen bizkar ez geratzeko? Eta nola bihurtu borroka horiek guztiak aldaketa politikoen eragile? ●

## ANALISIA



LA VÉRITÉ POUR ADAMA / L. GAVÈR

# Garra hauspotuz, surik ez da itzaltzen

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**P**oliziaren pean dagoena Yssoufou Traore da. Zehazkiago, Frantziako Poliziak 2016an hildako Adamaren anaia. Lurreraturik dute, belaunarekin blokeaturik. Oroit George Floyd? Postura horretan hil zuen Poliziak. Postura berean hil zen Yssoufouren anaia ere. Justizia eta erreparazioa galdetzeko manifestazioaren ondotik ateratako argazkia da. Atxilotu eta komisariara. Komisariatik ospitalera. Salaketa jarri du. Beste behin justizia eske. Poliziak Nahel Merzouk gaztetxoa hil zuenetik hamaika egunetara. Kontrol batean tiroz hil du Poliziak, kitorik. Eskerrak hortik zihoan batek ueña grabatu izana. Bestela, Alhoussein Camara-ren gisa geldituko zen: inoiz argitu gabeko Poliziaren hilketa bat, eta hildakoaren hurbilekoentzat sekula aitortu gabeko injustizia bat. Nahel Merzouk hil baino hamabost egun lehenago hil zuen Alhoussein Camara Poliziak, kontrol batean. Legea bere alde du Frantziako Poliziak: kontroletik ihes egiteagatik, zilegizko defentsa bideratu dezake, bere bizia arriskuan duelakoan. Zilegi du Poliziak *arma tiro pum* parekoaren bizitzari bukaera ematea. Frantziako Estatuan, beltz eta arabiar bat zuri bat baino hogeid aldiz gehiago kontrolatua da. Hori dio eskubideei begira dagoen Estatuaren *Defenseur des droits* instituzioak. Enegarren aldiz bideraturiko kontrolak ezinegona sortzen diola? Kasu, *arma tiro pum*. Zenbakia plazaratu berri du *Basta* komunikabide independenteak: 26 herritar hil zituen tiroz iaz Frantziako Poliziak. *Banlieue* edo auzo popularretako lekukotasunak irakurri eta esanguratsua da zenbatek dioten "Nahelen istorioa entzutearekin nire anaia txikia izan zitekeela pentsatu dut". Frantziako auzo popularretako anaia, arreba eta ahizpa guzuen eguneroko ogi direlako Polizia armatuaren kontrolak.

Bizitza aitzina doa suteek kiskalitako auzo horietan. Sua piztu zuena dabil orain erre usaina arnasten, eta arras ongi daki egunerokoak berdin-berdin segituko duela beretzat. Akim 1979; Toumi 1983; Ibrahim 1994; Zyed eta Bouna 2005ean; Theo 2017; Nahel 2023... Poliziak hildakoaren izena eta matxinada urtea. Horrela osatu dezakegu *banlieue*-en historia bat. Suteek balio digute gurutzatzeko auzo horietan bazterturiko eta ahantzitako errealitatea. Oroitarazteko han direla, langabezia, zerbitzu publikoen eskasian, eskaintza artistikoaz urrun, diskriminazioen artean, gaizki izatean eta Poliziaren baitako arrazakeria sistemikoaren jomugan. ●



# 646

forma berri jaso ditu Euskaltzaindiak Hiztegia sarean. Tartean dira mikromatxismo, joño, kieto, nabarrismo, pupa, zurgai, euskara gaizto, pott egin, ostia txar, negar-marraska, kokorreraino, liburu elektroniko, indukziozko, egia berdadero, afariketana...

# 1.000

sinadura lortu dituzte Arrangoitzen, 5G antena bat kentzeko. Antenak osasunean ziurgabetasuna eragiten duela salatu dute.

# 20

azpiegitura fotovoltaiko eta eoliko berri egiteko aukera dago Aiaraldean (Aiarra herrian 16 proiektu fotovoltaiko agertzen dira), ohartarazi du Aiaraldeako Mendiak Bizirik Plataformak. Helegitea jartzeko deia zabaldu du.

## “Aldaketa klimatikoa kontrolik gabe dago”

**ANTONIO GUTERRES**

Tenperatura errekorrak bata bestearen atzetik, planeta modu kezkaragarrian ari da berotzen, ohartarazi du NBEko idazkari nagusiak.

2023-07-10



## “LURRA ETA ETXEBIZITZA, LOGIKA KAPITALISTAN PRESO, MERKANTZIA BILAKATZEN ARI DIRA GEROZ ETA GEHIAGO”

**OSTIA KOLEKTIBOA**

Mobilizazio eguna antolatu zuen Ipar Euskal Herrian uztailearen 15ean, lurraren eta etxebizitza eskubidearen defentsan, eta espekulazioaren aurka.

2021-09-11

## “Baiona ez da kolpez eroriko”

**SERGE ARCOUET**

Baionako higiezinaren ondarearen axuantaren hitzak dira. Pasa diren asteetan, erortzeko arriskuagatik, Baiona hiri erdiko bost eraikinetatik aterarazi behar izan dira bizizaleak. Azken aste hauetan kasuak biderkatu egin dira.

2023-07-14



## TEKNOLOGIA

## Behiak zer dira?



DIANA FRANCO

**G**izakiok badugu gure kabuz ikasteko gaitasuna, badirudi gure espeziearen arrakastaren arrazoietakoa bat hori dela. Badirudi gaitasun hori, norbere kabuz ikastea, badutela ere adimen artifizialek. Gaitasun horrekin batera, badirudi adimen artifizialek gure ikasteko zenbait akats ere jaso dituztela. Nik behintzat badut arazo hori, askotan informazio gutxiarekin konklusio bat ateratzen dut, lasterbidea bilatzen dut. Horren inguruan, *Quanta Magazin*-ean irakurri dut Anil ananthaswamyk idatzitako artikuluan jartzten duen adibidea: "Zenbait adimen artifizialek belar gainean dagoen animalia bat behia dela adierazi izan dute, euren kabuz ikasi dutenean". Hau da, ahalegin txikiena egiteko diseinatuak izanda, lasterbidea, errealitatea modu faltsuan ulertu izan dute.

Eta konturatu naiz badela gauza bat ikasteko prozesuan adimen artifizialietatik bereizten gaituena: bizipenak.

Nolabait, adimen artifizialek ikasteko duten modua bizipen bat duen konplexutasunetik urrun dagoela iruditzen zait (momentuz). Adimen artifizialak kutxa itxietan daude: haizea, usaina, mugimendua, soinua, begirada, ukitzea, harremana... falta zaie (momentuz). Bizipena zelaian egotea da, animalia ikustea, ukitzea, berekin harremana izatea... Abstrakzioa bizipenarekin desagertzen da, gure ikasteko modua gure gorputz bizidunarekin lotuta aberatsagoa eta zehatzagoa da. Bitartean, adimen artifizial bat, gaur egun behintzat, behiaren esperientzia txikia izaten ari da.

Hausnarketa horrekin, burura datorkidana gure haur eta gazteei bizipen bidezko hezkuntza bat gerturatzea da, euren gorputz bizidunak tokian tokiko errealitateetara lotuko dituztenak, bertan boteretzeko eta bertako gertaerak eta beharrak hobeto ulertu eta eragiteko ahalmena izan dezaten. Ezer berririk ez, baina oraindik ere eraginkorra. Bizipenik gabeko hezkuntza bat baliatzen badugu, gure haur eta gazteak hezkuntza adimen artifizial baten entrenamenduaren mailara gerturatuko ditugu. ●

## NAZIOARTEA



## Ume beltzak jipoitzera animatzen?

**AXIER LOPEZ**

**F**inlandiako presidenteorde, Ogasun ministro eta Finlandiarren Alderdi ultraeskuindarreko lider Riikka Purra holakoak idatzi zituen 2008an: "Hain nago gorrotoz eta amorrus beterik, nire aulkian urteko zorian bainago. Jainko maitea, zer egiten diozu nire psikeari, Islam?", "Pistola bat emango balidate, hurbileko trenean ere hildakoak egongo lirateke", "Helsinki bazuadete, norbaitek eskaleei txistua bota eta ume beltzak jo nahi?", beste hainbat astakeriaren artean.

Jussi Halla-ahoren alderdikidearen blogean idatzi zituen. Garai hartan Halla-aho zinegotzia zen Helsinkin. Blogeko idazkiak direla eta, arraza-gorrotoa sustatzeagatik zigortu zuen Halla-aho Auzitegi Gorenak 2012an. Halere, eskuin muturreko alderdiko buru izendatu zuten 2017 eta 2021 artean, eta gaur egun Finlandiako Parlamentuko presidentea da Jussi Halla-aho.

Riikka Purraen aldarrikapen arrazista horiek beste krisi bat eragin dute duela hilabete eskas osatu zuten eskuindarren arteko koalizio gobernuan -Espainian PPK eta VOXek amesten dutenaren modukoa-. Halere, ez da lehen aldia xenofobo hauek ipurdi bistan geratu direna. Ekainean Vilhelm Junnila izendatu zuten Ekonomia ministro, baina bi aste baino gutxiago iraun zuen karguan. 2019an, diputatua zela, Aliantza Nazionalista erakunde neonaziak antolatutako ekitaldi batean parte hartu zuela jakitera eman zen, eta beste hainbat kontu ilun leporatu zioten, tartean 'Heil Hitler'

leloarekin txisteak egitea edo sare sozialetan esbastiken irudiak argitaratzea. Parlamentuan konfiantza moztio batetik bizirik atera bazen ere, azkenean dimisioa eman behar izan zuen, klima krisiari aurre egiteko "emakume afrikarren abortu masiboak" eskatu zituela zabaldu zenean.

Baina kontua ez da hor amaitu. Willem Rydmanek ordezkatu zuen Junnila. Rydman Koalizio Nazionalen Alderdiko -azken hauteskundeak irabazi dituen alderdi kontserbadorea- kidea izan zen iaz arte. Orduan kazetaritza-ikerketak batek zabaldu zituen hainbat neska neraberren salaketa matxistak Rydmanen aurka. Rydmanek aterpea bilatu zuen eskuinerago joanda, alderdiz aldatu zen, hauteskundeetan Finlandiarren Alderdiarekin aurkeztu eta egun Ekonomia ministroa da.

Riikka Purraen kasura itzulita, presidenteordeak esandakoak aitortu ditu, baina justifikatu ditu esanda duela 15 urteko kontuak direla eta artean politikan sartu gabe zegoela. "Testuingurutik aterata daude", dio. Barkamenak ez du saihestu nazioartean ere tentsioa sortzea. NATOk Lituaniari egindako goi-bileran, Turkiari barkamena eskatzeko adierazi diote Finlandiari, Turkiako etorkinak "tximino" gisa definitu zituelako Purra.

Lehen ministro Antti Petteri Orpo pozik geratu da bere gobernuakide nagusiaren azalpenekin. Beraz, ardi-larraz mozorrotutako otso arrazistek jarraituko dute zuzentzen eskandinaviar sozialdemokraziaren erreferentetako izandako lurraldea, eta egun NATOren azken fitxaketa dena. ●



# Espainiako Poliziaren infiltratuak

LA DIRECTA



**HERRIALDE KATALANAK /** Emozio eta sentimenduetan oinarritutako infiltrazio estrategiak baliatu ditu Espainiako Poliziak, Kataluniako ezkerreko hainbat mugimendu eta eragiletan sartzeko. Berriki, laugarren kasu bat azaleratu dute, oraingoan Gironan. Kasu honetan, ezkutuko poliziak etorkin adingabeen aldeko eta etxebizitza sindikatuen mobilizazioetan eta asanblada irekietan parte hartu zuen.

Espainiako Poliziak 2020an martxan jarritako infiltrazio olatuaren laugarren hanka da. Agentek Maria Perelló Amengual gisa aurkezten zuen bere burua. 2012 eta 2015 urteen artean kriminologia ikasketak egin zituen, eta 2017an Polizia eskolan hasi zen Ávilan (Espainian).

2020ko ekainean etorkin adingabeentzat “ogia, bizitokia, paperak eta lana” aldarrikatzen zuten mobilizazioetan parte hartu zuen. Ondoren, *La Directa*ren esane-

tan, Gironako militante bat ezagutu eta bikote harreman bati ekin zioten. Horri esker, erraztasun handiagoak izan zituen Gironako mugimendu sozialak eta independentistak gertutik bizi eta ezagutzeko. Esaterako, 2018ko urriaren 1ean auzipetuak izan zirenen (21 Raons kasua) eta haien abokatuen arteko bileran egoteko aukera izan zuen eta auzipetuen defentsa guztiaz jabetu zen.

Gironako etxebizitza sindikatu, asanblada ireki eta Pablo Haselen askatasunaren aldeko mobilizazioetan ere parte hartu zuen poliziak, besteren artean. Gainera, Gironako martxoaren 8ko koordinadorara sartzeko saiakera egin zuela ere gaineratu du hedabideak.

“Niri egindako erasoak ez dauka izenik, ni eta nire familia suntsitu ditu”, salatu du poliziaren bikotekide izandako militanteak. Bere “borondate onenarekin” harreman bat hasi zuela eta “engainatua” sentitzen dela azpimarratu du.

# ARTIKOAN IZOTZEN URTZEAK ZABOR ERRADIOAKTIBOAK ERE BARREIATUKO LITUZKE

Ekosistema artikoak bereziki hauskorak dira, bertako tenperatura apalengatik izaki guzien hazkuntza mantsoa baita, eta nahasmendu baten ondotik berrosatzeko denbora luzea behar baita. Halere, ekosistema artikoak bihurtu dira XX. mendeko hainbat jarduera industrialen zabortegei, militarrek bertan nahitara utziz edo kutsadura globalaren ondorioz. "Ondare" hori kudeatzeko tresnak oraindik garatzeko daude.

 NICOLAS GOÑI

**X**XI. mendeak XX.aren gehiegikerien aje luzea ekarriko digula dirudi gero eta gehiago, nahiz eta zoritxarrez, albo kalteak pairatuko dituztenak ez izan gehiegikeria horien errudun. Hala gerta zaiguke Artikoaren izotzen urtzearen ondorioz.

Ezaguna da udan ere izoztua ohi zirauren bertako lurzorua –permafrosta deiturikoa– gero eta lasterrago urtzen ari dela, izozturik dagoen metanoa atmosferara isuriz eta berotegi efektua indartuz. Gutiago ezagutzen dira aldiz urtze horrek dakartzan bertzelako arriskuak, zehazkiago bertan oraingoz lur azpian izozturik dirauten material biologiko, kimiko eta nuklearren barreiatzearen ondorioak. Osagai horiek ingurumenera berriz zabaldu ahala, ekosistemen funtzionamendua larriki andeatzeaz gain, Artikoaren hainbat espezieren populazioak murriztu eta giza osasuna arriskuan ezarri litzakete, 2021eko urrian *Nature Climate Change* aldizkarian argitaraturiko *Emergent biogeochemical risks from Arctic permafrost degradation* ("Arktikoko permafrostaren desegitearen ondorioz gorabidean dauden arrisku biogeokimikoak") ikerketaren arabera.

Artikoan arma nuklearren saiakerak

1950eko hamarkadan hasi ziren. Sobietar Batasunaren gehienak Zembla Berria ugarteetan egin ziren, 1955ean hasiz, eta ugarte horietan bizi ziren Nenets herriko ehiztariak eta arrantzaleak kontinentera erbesteratuz. 1990 bitartean, 130 proba egin zituzten, denera 265 megatona-koak. Proba horiez gain, Barents eta Kara itsasoetan 100 itsaspeko nuklear baino gehiagoren hondakinak daude –bide batez, gaur egun European kontsumitzen den bakailoaren gehiena Barents Itsasotik dator–. Txernaia badian, Zembla Berriko hegoaldeko muturrean, jalkinek kiloko 2,500–11,000 Bq bitarteko plutonioa daukate, erradioaktibitate maila naturala kiloko 0–3 Bq delarik.

Partikula erradioaktiboak ez dira bakarrik jalkinetan gelditzen, ingurumenera zabaltzen dira ere, eta ez dago argi eskualdean itsas korranteek kutsadura hori nora eramanez duten datozen hamarkadetan. Iparreko ugartearen izotzean zesio 137 kopuru handiak daude ere, kiloko 450-650 Bq bitartekoak, izotza urtuko denean Ozeano Artikora zabalduko direnak. Errusiako Estatuak eskualde horretan hondoratutako itsaspeko horien kente plan bat iragarri zuen arren, asko ez dira kenduko, eta geratuko direnak

8,860 TBq –milioi milioi Bq– mailako erradiazioa emititzen ari dira.

Mendebaldean, Ameriketako Estatu Batuek ariketa ezberdinak izanik ere ingurunean antzeko aztarnak utzi dituzte. Groenlandia iparreko Camp Century ikerketa zentroa zen, 1959an izotz azpian bideratzi metrotara eraikia. Erreaktore nuklear txiki batek energia hornitzen zion, baita zaborra ekoitzi ere. 1967an zentroa itxi ondoren zabor guziak bertan gelditu ziren izotz azpian –gaur egun, izotz horrek urtean 268 tona galtzen ditu–. Denek batera, zabor horiek 1.2 mila milioi Bq mailako erradioaktibitatea dute.

Oraindik garaiz leudeke gunea garbitzeko, baina izotzen urtzean infiltratzen den urak materialak zabaldu ditzake. Gainera, hortik hurbil 1968an gertatu zen istripu larri bat: Qaanaaq herrian eraiki zuten base militarretik gertu, bomba nuklearrak zeramatzan B52 bonbaketari batean sute bat gertatu, hegazkinak lehertu eta 4.6 milioi milioi Bq uranio eta plutonio barreiatu zituen Groenlandiako izotzaren azalean.

Oro har, Artikoaren kutsadura nuklearra oso handia eta mugikorra da. 1990eko hamarkadan zesio 137aren mugimenduak eta xurgatzea aztertu zi-





### IZOTZAREN URTZEAREN ONDORIOAK

Groenlandian, Camp Century AEB-n base militar sekretu abandonatuaren gaineko izotzen urtzeak kutsadura erradioaktiboa eta kimikoa ozeanora isur lezake. Hain zuzen, denek batera, zabor horiek 1.2 mila milioi Bq mailako erradioaktibitatea dute.

tuen ikerketa baten arabera, erradioaktibitate maila arriskutsuak egon daitezke 2500 urtea arte –baina klima aldaketak eragindako aldaketa berrienak ez dira kontuan hartu-. Material horien xurgatzearen arriskuen artean dugu irradiazio akutaren sindromea, biriken andeatzea eta minbizia.

### ARRISKU NAHASPILATUAK

Zabor nuklearrak aski ez balira, Artikoan izotzen urtzeak kutsadura kimikoari loturiko arriskua emendatzen du. Atmosferako korranteek poloetara ekartzen dituzte errekontzaren albo-produktuak, ezagunenak dioxinak direlarik.

Berdin gertatzen da lainoztatu ohi diren hainbat molekula organoklorinoekin: DDT eta lindanoa pestizidak, edo zirkuitu elektrikoetan erabili ohi den PCBa. Gaur egun debekatuak, baina



oraindik ingurunean barreiatuak izanik, haizeek poloetara eraman eta metatzen dituzte. Gero elikadura sareetan sartu eta bioakumulatzen dira, horregatik hartz polarren eta bertze harrapari handien gantzan aurkitu ohi dira kopuru handitan. Orain arte halere, kutsadura horren zati handi bat izotzean gelditzen zen. Aldiz izotza urtu ahala ingurunean duten kontzentrazioa emendatzen ari da. Horiei gehitu behar zaizkie meatzaritaren hondakinen hainbat metal astun –arsenikoa, kadmioa, nikela eta merkurioa nagusiki– eta petrolio erauzketaren kutsadura. Zonalde kutsatuena Yamal eta Taimyr penintsulen artean izan daiteke, batez ere Norilsk hiria. Bertako nikel meategiaren enpresatik, hain zuzen, marea beltz bat abiatu zen 2020ko maiatzean, urtzen hasitako permafrostean eraikitako andel bat hausteagatik.

### BIRBIDERATU BEHARRA

Anna Tsing antropologoak dioen bezala, kapitalismoaren hondamenetan bizi gara, eta Artikoaren egoerak gordinki ohartzarazten digu nola duela guti ia zipriztingabeak ziren gune zabal horiek hamarkada gutitan zikinduak eta eraldatuak izan diren, ehundaka urtetarako.

Horrelako egoerek “komunal negatiboak” sortzen dituzte, Emmanuel Bonnet, Diego Landivar eta Alexandre Monnin iker-tzaileek zehazturiko kontzeptuaren arabera, eta komunal horiek kudeatzeko tresna egokirik ez dugu oraindik garatu maila globalean, arazoa ez baitugu bere dimentsio osoan ulertu. Bi erronka batera ditugu beraz: komunal horien negatibotasuna larrituko lukeen klima aldaketa murriztea, eta hondamen horiek –eta horiekiko dugun harreman iraungaitza, gure ekoizpen moduaren bitartez– desegiten ikastea. ●

Garrett Leight eyewear



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Martxelo Otamendi

EUSKARAZKO EGUNKARIAREN AURPEGIA



## ZUZENDARI BERRIAK ORAIN ARTE IZAN EZ DUEN KALITATE MAILARA ERAMANGO DU BERRIA



Euskarazko egunkariari loturik eman du bizialdiaren zatirik handiena, horixe du sor-marka eta jatorrizko izendapena. Eguneroko kazetari loturik jardun du beti, eta ekarri dizkio disgustu ez gutxi. Handiena, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera 2003an, eta hainbat lagun orduz lehen galtzea.

 MIEL A. ELUSTONDO  IBAI ARRIETA

### 1957an Tolosan jaioa.

Hiru mutil eta neska bat, eta mutiletan hirugarrena naiz ni. Tartean, nik ezagutu ez nuen haur bat ere jaio zen, bizirik gutxi iraun zuena. Aita Nafarroako Uztegiakoa [Araiz] nuen, ama Tolosakoa, baina aita azpeitiarra zuela -Egiguren, Eperra tabernakoa, Kanpionekoak-, eta, ama, berriz, Alkizakoa. Baina ez umetako kontu askorik galdetu, memoria txarra dut-eta gauza askotan. Ez dakit zer ari nintzen bost urte nituenean, ez dakit bizi nintzen ere. Beste gauza askotan memoria ona dut, baina gauza batzuk, mugarri batzuk, askotan errepikatzen ditudalako. Azkeneko, ez dakit memoria gorabehera den, edo den, beste gabe, gauza batzuk behin eta berriz kontatzearen poderioz errelatoa eraikitzen dugun gure buruan.

### 1974-75. Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea amaitu duzu.

Eta berehala nintzen Euskalduntzen 3 ikastaro batean, Antton Izagirre irakasle nuela. Galdutako denbora erreperatze-ko gogo handia nuen, eta, laster, D mailako ikastaroa egiten hasi nintzen, aste barruan Tolosako gau-eskolan, eta larunbatetan Donostiako EUTGn... Gure etxean, aitak anai-arrebok erdaraz hitz egiten harrapatzen bagintuen, ez zigun pagarik ematen, eta orduan amari joaten gintzaizkion. Nafarroako mendialdean urte askoan iraun duen tipologia zen gure etxekoa: "Etxean euskaraz, eta euskaraz bakarrik, gure hizkuntza delako!". Euskara zen etxerako, eta ez Lizardiren noranahiko. Gure aitaren jarrerak ez zuen oinarri ideologiko edo politikorik, prepolitikoa baizik.

### 1984. Euskara irakasle Tolosako euskaltegian, eta *Egin* egunkariaren euskarazko gehigarrian kolaboratzen.

Gehigarriaren arduraduna, Xalbador Garmendia, euskaltegira etorri zitzai-gula uste dut, eta Xabier Telleriarekin batera hasi nintzen *Egun on* gehigarrian idazten, ezizenez. Ordurako, *El Diario Vasco*-n Tolosako saskibaloitzaletaren kronikak ere idazten nituen, taldeko jokalaria nintzela baliatuz. Garai berean, udan Londresera joaten nintzen antzerkia ikustera. Bazen antzezle bat asko estimatzen nuena, Vanessa Redgrave. Eta Jack Lemmon eta Faye Dunaway ere ikusi nituen antzeztan. Londresen, antzerki-denboraldia irailean hasten zen, baina abuztuaren jendaurreko entseguak egiten zituzten konpainiek, eta sarrera





# Martxelo Otamendi Egiguren

TOLOSA, 1957



*Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaria, Espainiako Gobernuaren aginduz itxi zuten arte, eta *Berria*-koa izana, oraindik orain erretiroa hartu duen arte. Eta, erdian, eta betiko, torturak. Esana du: euskarazko egunkari hura, 2003an itxita; lehenik, hamar atxilotu, zazpi torturatu, hiruk minbizia garatutakoak. Eta *Egunkaria* itxi eta biharamunean, *Egunero*, eta hilabeteetara, *Berria*. Eta 30 urte eta gero, erreleboa: Amagoia Mujika Tolaretxipi. Eta hemendik atzera, erretiratua- ren laneko proiektuak.



merkeena ordaindu eta sartzen nintzen entseguak ikustera, oilategian, erdia entzuten ez nuela, eta beste erdia ulertzen ez nuela.

## **1987. ETBn hasi zinen, Txoria dut maite saioa eginez.**

Telebistatik deitu zidan Andoni Aranburuk, programa hura zuzentzeko eskainiz. Oker ez banago, niri baino lehen Kike Amonarrizi eskaini zioten, Kikek ezetz esan baina nire izena eman zien. Hortaz, ni gaur *Berria*-ko zuzendariaren bulegoan nago Kikek ezetz esan zuelako. Bestela, ni oraindik subjuntiboa esplikatzen ibiliko nintzen euskaltegian. Baina adin hartan, banuen gorputzaldia, gauzak diferenteak egiteko gogoia, eta telebista aukera bat zen. Bost urte zeramatzan martxan telebistak, heldutasun puntu bat zuen, baina esperimintatzeko garaia ere bazen, eta hantxe sartu nintzen, *Txoria dut maite*-n. Bi urte gehiago iraun zuen saio hark, eta, gero, jarraipen-taldean hasi nintzen, arduradun.

## **1989ko uda. Boise, Idaho, AEBak. PBSen zaitugu, hanga telebista publikoan.**

ETBren kanpo-erosketa taldeak harremanak zituen PBSrekin, eta taldeko Jesús Igueresi esan, eta joan nintzen. Ez nekien Boise bazela ere! Ezta artzainak ere! Ezta Pete Cenarrusa edo Justo Sarria bazirela ere! Ordu arte, ETBn ibilia nintzen arren, benetan programa bat nola egiten zen ez nekien. Eta Boisen horixe egin nuen, programa bat, *Outdoor Idaho*, naturan grabatzen genuena, eta ikusi nuen, eta ikasi, zer zen erreportajea egitea, eta elkarrizketak. Boisen ikasi nuen hori! Eta deskubritu nuen diaspora, bigarren eta hirugarren belaunaldiko euskaldunak, han jaiok baina euskaraz zekitenak eta Euskal Herriarekiko sekulako zaletasuna zutenak, Oinkari dantza taldea, euskal etxea, Bieter familia... Mundu berri bat!

## **1993. Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uria joan zitzaizkizun, Euskaldunon Egunkaria-ren zuzendari izateko eskainiz.**

Lagun beltz bat eramán omen nuen bilerara, Lasarteko hipodromo ondoko jatetxe batera. Ez nintzen gogoratzen, eta ez naiz gogoratzen, baina *Egunkaria* itxi eta atxilotu gintuztenean, horixe galdetzen zidan polizia, nor zen lagun





beltz hori. Baina ni ez nintzen gogoratzen! Eta poliziak, baietz, Torrealdai esan ziela, eta orduantxe jakin nuen Joan Mari ere atxilotuta zeukatela. Geroztik, Joan Mari-ekin eta Iñaki Uriarekin hizketan, baietz, esan zidaten lagun beltz bat eraman nuela bazkari hartara. Garai hartako lagun bat, Londresen bizi zena, tarteka hona etortzen zena. Alegia, hortik atera kontuak zer espero nuen nik bilera hartatik.

**Polizia zu galdekatzen, Joan Mari Torrealdai atxilotu dutela ohartu zara. Gure elkarrizketara ere sartu zaizkigu guardia zibilak eta poliziak, eta haien tratu txarra.**

Horixe da haien rola, errepre-soreak dira, “¡A por ellos!” [Era-so!] egiten dute hona datozenean, edo Kataluniara doazenean. Iparraldeko Frontea dute hau, eta badakite nahi dutena egiteko babes dutela. Galdeketa antzematen da ez daukatela ezer gertatuko zaien kezkarik txikiena ere. Atxilotu nindute-nean konturatu nintzen, eta frogatu dut

gero ere. *Egunkaria* itxi eta gero, guardia zibilek ezagutzen ninduten. Hondarribiko aireportura joan, eta guardia zibilak bata besteari ukondoka, “Begira zein datorren hor!”, esanez bezala. Eta *Egunkaria*-ko langileak ere ez dira haien tratutik libratu.

### **2003. Ez dakit gerra teknika den Euskaldunon Egunkaria ixtea, ARGIA arpilatzea...**

Joan Mari Torrealdai esaten zuen euskalgintza kriminalizatzeko itxi zutela *Egunkaria*. Joan Mari-ekin esaten zuen Guardia Zibilak tesi bat zuela, zeinaren arabera euskalgintza instituzionalak –Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, diputazioak, udalak... –, euskara laguntzea onartzen den –besteak beste legeriak halaxe jasotzen duelako–; eta euskalgintza zibila, soziala, ETaren ardurapekoa den. Euskalgintza instituzionala, libre; euskalgintza soziala, ETaren menpekoa. Hori baino gehiago ere badagoela uste dut, nahiz Torrealdai ni baino gehiago zen estatuaren estrategia espilikatzeari dagokionean.

### **Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera.**

Baina estatuaren logikaren arabera ere, *Egunkaria* ez zegoen estatuari kontra egin ziezaioketen erakundearen artean lehen leerroan. Beharbada, hogeigarren zegoen zerrendan! Nik uste abisua eman nahi ziotela jendeari: “Kontuz, Ibarretxe Plana! Kontuz, autodeterminazio eskubidea! Kontuz, independentzia!... Ez duzue sinesten?”, eta *Egunkaria* itxi zuten, euskal kulturaren begi-ninietako bat itxi zuten, *Egunkaria*-ren arduradun eta Euskal Herriko gizar-tearen barruan nor diren pertsonak –Joan

Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Iñaki Uri, Xabier Oleaga, Pello Zubiria... hamar laguneko zerrenda osatu arte–, denak atxilotuta, eta ETako kide izateaz akusatuta.

### **Eta torturatuta.**

Torturak hiru funtzio dauzka: informazioa lortzea, mendekua, eta herritarrak beldurtzea.

Ni libre utzi ninduten, hitz egin nezan, beldur horren hedatzaile izan nendin. Bali-

teke mezua haien kontra itzultzea, edo ez. Torrealdai torturatzeak erakusten du Espainiako Estatua edozer egiteko prest zegoela, eta dagoela. Arantzazu hartzeko, adibidez. González Txabarrik kontatua du baten batek deitu ziola –baina oraindik ez dakigu nork deitu zion, Txabarrik ez



## **HOMOSEXUALITATEA**

“Gauza asko toleratzen dira gaur egun, eta, toki askotan, erdeinatzetik normaltasunera egin dugu, baina munduko leku askotan, homosexualitatea semea edo alaba etxetik botatzeko motiboa da oraindik, edo etxetik alde egitekoa. Ezagutzen ditut kasuak. Homofobia latente bat dago oraindik gure artean, eta belaunaldi berriei diren eta ez diren azalpen guztiak emanda ere, kezkatzeko moduko jarrera homofoboak agertzen ari dira haien artean ere”.

## **GARUN-IHESA**

“Bizi-zikloak dira. [Imanol, Lorea, Juan Luis, Idurre, Amagoia, Alberto, Jose Mari...] Gazterik sartu ziren *Egunkaria*-n, batzuk ARGIAtik etorri ziren, egunkaria sortu zuten belaunaldikoak izan ziren, eta, gero, ziklo hori bukatuta, beste bide bat hartu zuten. Egunkariko lanak ajeak ditu, ordu asko, soldata alturik ez, larunbateko lana... egunkari askotan gertatzen da, eta zuzendariaren lana da erreleboa prest izatea. Garunak aipatu dituzu zuk, hasierako haiek, eta haien garaian, bekadun zen oraingo zuzendaria. Hortxe erreleboa. Harrobia da gakoa”.

### **Azken hitza**

## **PRESOAK ETA INDEPENDENTZIA**

“Politikari katalan batek horixe galdetu zidan, orain zer egin behar dudun, eta ‘Presoak eta Independentzia’, esan nion. ‘Eta euskara’ gaineratu nezakeen. Ez naizela geldirik egongo esateko modua”.

du esan-, Arantzazura zetozen guardia zibilak Mirandan geldiarazi zituztela. Sinbolo bat, Arantzazu, nahiz eta ez dakidan haiek ba ote zekiten zer esan nahi duen Arantzazuk euskal kulturarentzat.

### **Egunkari berria jaio zen gero, oraingo Berria.**

Eta Jaurlaritzak proiektua “berbidertzeko” saioa egin zuen, zenbait elkarriketa tarteko, eta zenbait baldintza, *Egunkaria*-ren langileek onartu ez zituztenak, nahiz Jaurlaritza proiektu berrian diru asko jartzeko prest egon. Baldintza haien artean zen, adibidez, ni proiektu berriko parte ez izatea, baina gure jendeak ezetz esan zuen. Iraganaren irakurketaz hainbeste hitz egiten den garaian, irakurketa osoa egin behar da, eta, esaterako, horregatik ez dut nik memoria-rik idatzi nahi.

**2008. Europako Giza Eskubideen Auzitegira jo zenuten tortura kasuen salaketarekin, eta, 2010ean, berriz, absolbitu egin zintuzteten. “Justizia eta erreparazioa” esaten den honetan,**

### **absolbitzea erreparazioa da?**

Ez, erreparaziorik ez da izan. Europako [Giza Eskubideen Auzitegiaren] sententzia oso gogorra da, oso gure aldekoa, oso Juan del Olmo epailearen instrukzioaren kontrakoa, eta horixe behar genuen guk: absoluzioa, batetik, eta sententzia oso gogor bat Europaren aldetik. Gure jendeak sinesten zigun, baina jende gehiagok sinestea behar genuen, eta absoluzioak asko lagundu zigun horretan. Horrekin batera, Europak gure tortura salaketak babestea ere behar genuen. Neu izan nintzen bakarra, tortura salaketak Europara eramaten, Iñigo Iruin abokatuaren lan bikaina tarteko. Eta Europak Espainia zigortzea lortu genuen, bataila hori ere irabazi egin genuen. Europak ez zuen esan Martxelo Otamendi torturatu egin zutela, instrukzioa ez zela behar bezala egin besterik.

**24.000 euroko isuna jaso zuen Espainiak, “oso merke”, esan zenuenez.**

“Ordainduko dugu. Zuek, segi torturatzten!”, esateko moduan. Estatuaren in-

teligentziak torturatzen jarraitu behar dela erabaki badu, 24.000 euro ez da dirua, limosna hutsa da. Estatuaren arabera, torturaren bidez lortu dezakeen informazioak hori baino askoz gehiago balio du. Estatuaren estrategia da, estatuak babes osoa ematen die torturatzaileei, eta hargatik ezin dugu jakin nor diren torturatzaile horiek... Hala ere, konbentzitutua nago torturatzaile bat ezagutu nuela. Haien artean bazen bat oso ahots edo eztarri marrantatua zuena. Uste dut halaxe erabiltzen duela [Bernardo] Atxagak *Camilo Lizardi*... ipuinean. Halakoxea zuen nire torturatzaile hark ere, Eskoziako whiskia asko edan duenaren ahotsa.

(...)

“Niri *Torque* deitzen didate!”, esaten zuen torturatzaile hark. “*Torque... Torquemada*. Ba al dakik zein izan zen *Torquemada*?”, eta, nik: “Bai, Guardia Zibilaren fundatzailea!”. Jendeak barre egiten dit, zeren eta *Torquemada* inkisidore izan zen, eta Guardia Zibilaren fundatzailea, berriz,







izan zen Ahumadako dukea [Frantzisko Girón Ezpeleta, iruindarra]. Dena dela, ahots marrantatu hura grabatuta gelditu zitzaidan. Hurrena, Portu eta Sarasolaren tortura auzian izan nintzen, Donostiako Probintzia Auzitegian, eta hamar-hamabi guardia zibil eraman zituzten errekonozimendu errondara, nahiz ileorde, betaurreko beltz eta abarrak modu itsusian jantzita. Kasik guri burla egiteko moduan. Deklaratzeko garaian, haietako bat hizketan hasi, eta delako *Torquemada* haren ahots marrantatua ezagutu nuen. "Hau-xe da!". Beti betiko guardia zibilak dira galdeketa egiten, bizpahiru talde dira, espezializatuak, Euskal Herria-Madril-Madril-Euskal Herria dabilzanak.

**2011. Albiste handi horixe emateko irrikian izan zinen urte askoan, eta eman ahal izan zenuten: ETAK jarduera armatua bukatzea erabaki zuen. Urte askoan, hala ere, karga pisu horren azpian lan egin behar izan zenuten garaiko hedabide eta kazetariak.**

Egoera guztietara "ohitzen" da gizakia, edo egokitzen. Baina egia da gure kazetariak oso gaizki pasatzen zutela atentatua izan zen leku batetik erredakziora etortzean, edo torturak salatzeako prentsaurreko batetik, edo... Euskal Herria saileko kazetariak asko sufritutako jendea dira, gurean eta besteetan, zuzen edo zeharka. Eta gizakia ohituagatik ere, egoera hura karga bat zen: atentatuak, salaketak, protestak, errebindikazioak, agiriak... Oso zaila da. Eta, bestalde, ETAK hildako batzuk pertsonalki ezagu-

tzen nituen: Juan Mari Jauregi, Joxe Mari Korta... eta, berdin, torturatu batzuk. Beraz, hori dena kudeatzea konplikatu da, errespetu handiz jokatu behar da. Eskerrak gure gorputzak bere mekanismo propioak ere aktibatzen dituen bere burua babesteko.

**Batzuek beste batzuek baino hobeto asmatzen dute beren burua babesten. Minbizia izan zuen Joan Mari Torrealdaiak, eta hil zen. Minbizia Inma Gomilak, eta hil zen. Minbizia izan zenuen zuk.**

Eta oraindik orain hil da [Ja-bier] Salutregi, minbiziak jota, urte askoan kartze-lan egonda. Eta Gorka Agirrek ere, EAJko kide historikoak, minbizia; Grande Marlaska in- struktore zela, Faisan au- zian sartu zuen Agirre, eta, buruzagi jeltzaleei entzunda nago haren minbiziak Faisan auzian zuela jatorria... *Egunkaria* auziaren lehen kolpean dauzkagu ha- mar atxilotu, zazpi torturatu, hiruk min- bizia garatu genuen, eta bi minbiziak hilda daude. Eta jakina da minbiziaren jatorria, askotan, trauma-ondoko estre- sak eragina dela. Halaxe adierazi zuen Torrealdaiak, [Imanol] Kerejeta psikia- traren lanak oinarritu hartuta -Donos- tia Ospitaleko Psikiatria Zerbitzu Burua da, edo izan da- eta Kerejetak berak niri esanda dakit badela psikiatria eta onko- logia lotzen dituen diziplina berri bat. Probabilitate kontua.

**2023. Agur, *Berria*-tik, Martxelo Otamendi.**

Banuen alde egiteko garaia, 30 urte eus- karazko egunkarian eginda! Beti zigor- tuta hemen! Kar, kar...

***Berria*-ren 20. urteurreneko ekitaldia, zuzendari berria aurkeztekoa, mundu osoari eskerrak emateko baliatu zenuen...** Irakurleak ahaztu zitzaizkidan! Eske- rrik asko hemendik irakurleei, *Berria* lagunei, harpidedunei, iragarleei, eta gurekin lan egin duten erakunde, alder- di politiko, sindikatu, kulturgile... Ho- riei eskerrak ematea ahaztu zitzaidan! Barka biezadate, euskara elegantean esanda!

**Barka biezazute, sailtako arduradun izendatu ez dituzun kazetari emakumeek.**

Bai. Beti izan dira emakumeak zuzenda- ritza taldean, baina behin ere ez modu orekatuan. Banuen joera mutilak ar- duradun izendatzeko. Bi konstatazio dira hor: batetik, banuen joera hori, eta, bestetik, ez nuen egoera zuzentze- ko mugimendurik egin. Gizonezkoek errazago esaten diete baietz ardura postuak hartzeari, eta, ni, berriz, ez nin- tzen jabetu martxan jarri behar nuela mekanismoren bat, emakumezkoek ere ardura postuei baietz esateko. Lankide emakumezko batzuek ikusarazi zidaten arte. Eta ikasketa-prozesua abia- razi behar izan nuen nik ere.

“

***Estatuak babes osoa ematen die torturatzaileei, eta hargatik ezin dugu jakin nor diren torturatzaile horiek***”

Zorionez, emakume horie- tako batzuk aitzindari dira gaur egunean hemengo feminismoan.

**Amagoia Mujika Tolaretxipi da *Berria*-ko zuzendari berria. Zein ondare jaso du?**

Enpresa sendo bat, egonkorra, gorabehera handirik gabea... gure ligan jokatzeko moduko egunkaria. Ba- dakigu zer egin dezakegun eta zer ez. Amagoia [Mujika Tolaretxipi] izan da, beste askorekin batera, *Berria* honaino ekarri duenetako bat, kalitatezko pro- duktu bat -nik esatea itsusia bada ere-, inguruko egunkarien artean homolo- garria, munduan hara eta hona batere konplexurik gabe dabilena, eta Ama- goiak are eta egunkari hobea egingo du *Berria*, dudarik gabe, halakoxe gaitasu- na du, eta orain arte izan ez duen kalita- te mailara eramango du, seguru. ●



# Iritziak

## Euskadi ala Euskal Herria



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**H**auteskunde garaietan gabiltza, eta zerumuga hurbilean Espainiako Gobernura eskuina eta eskuin muturra elkar hartuta iritsiko diren arriskuaz ohartarazten gaituzte. Paradoxaz, baina, testuinguru horretan, euskal alderdiak (abertzaleak esan nahiko nuke) haien arteko lehia bizian ageri dira, eta norgehiagoka horren motibo nagusia honako hau omen da: Espainiako Estatuan nagusi suertatzen den alderdia PSOE balitz, ea zeinek lor dezakeen, EAJk ala EH Bilduk, haren aliatu hurbila izatea, erabakigarria gobernu espainiar berria sortzeko orduan. Horrek erraztuko duelakoan euskaldunontzako zenbait hobekuntza lortzea.

Joan den legealdian ere ikusi dugu era horretako lehia bi euskal alderdien artean, eta oraingo kanpainan zentzu bereko mezuak luzatzen dituzte biek ala biek: “Berriro egingo dugu” diosku EH Bilduk, anbiguotasun kalkulatuan, eta esaldiak interpretazio zalantzarik sortuko balu, berau argitzeko, “jarraitasuna”ren promesa berritzen du. EAJk bere aldetik “Madrilen Euskadi egokien defendatzen duen euskal alderdia” dela ziurtatzen digu.

Biek Madrila begira jartzen gaituzte, beraz. Baina nork begiratu behar du, orduan, Euskal Herri honetara? Berriro ere balizko “gobernu progresista” baten gobernantzan jarri behar ditugu esperantzak? Zer promesa berri gelditzen zaigu entzuteko alde hartatik? Edota gobernu espainiarra eskuratzen dutenak eskuin

Berriro ere balizko  
“gobernu progresista”  
baten gobernantzan  
jarri behar ditugu  
esperantzak?  
Zer promesa berri  
gelditzen zaigu  
entzuteko alde hartatik?

makur eta eskuin muturrekoak balira, orduan zer? Orduan ere hemen ahari-topoka jarraituko dute etxeko alderdiek?

Ezin da ukatu Madrilen era bateko edo besteko gobernu osatzeak ondorio desberdinak ekar ditzakeela euskal jendartera, eta zentzu horretan eskuinak bertan muturra sartzea ez dela guretzat aukera desiragarria. Ezin ukatu, halaber, euskal alderdietako ordezkariak estatuko parlamentuetan agertzeak lagun dezakeela egoera hori ekiditen, batez ere eskuin espainiarraren aurrean jarrikerarik irmoenak dituzten ordezkariak badira. Baina ezin da errepikatu azken legealdiko jokabidea, ezin da ontzat eman euskal alderdien jokabide politiko nagusia Madrileko parlamentu zein gobernuarekiko tratuetan kokatzea, estatua bera legitimatuta eta bitartean Euskal Herriaren eraikuntza baztertuta eta

ahulduta. Azken hori baita gertatzen ari dena, jokabide erratu horren ondorioz. Estatuan gero eta integratuagoak, Euskal Herriak indarra galtzen duen bitartean herritarron imaginario kolektiboan eta gizarte egituretan bertan.

Paradigmatikoa gertatzen da, zentzu horretan, euskal nazioaren oinarritzko autodefinizioan aurkitzen dugun noraeza: Euskal Herria da gure nazioa, zazpi herrialdeek osatzen duten errealitate kultural eta politikoa, oraindik administratiboa ez den arren. Horrela izan da mendeetako historia luzean. Baina bide horretan gertatu ziren zenbait gorabehera, eta hor aipatu ziren *Euskaria* lehenik eta *Euskadi* gero, azken hori izaera politiko espezifikodun nazio komunitatea izendatzeko asmoz sortua. Kontua da *Euskadi* kontzeptuaren erabileran nahastea sortu zutela, lehenik 1979ko Autonomia Estatutuaren lehen artikuluan bertan hiru herrialdeko komunitate politiko partzialari “Euskadi zein Euskal Herria” izen metonimiko biak sinonimotzat atxikitzean. Akats larria, gaur ikusten denez. Ondorio praktikoa larriak dituena: Eustat erakundeak “Euskadiko populazioa” zenbatzen duenean gaur 2.186.517 biztanle ematen ditu, baina Gaindegiak, aldiz, diosku Euskal Herrian 3.193.513 euskaldun bizi garela (ondo esan dut euskaldun esatean? Zer esan beharko nuke?). Horrela gabiltza, bai.

Naziogintza behar dugu, premia larriaz, ez horrenbeste madrilingintza edo parisgintza. ●



## Aita Santanuaren agurra



**JOSE IGNAZIO  
ANSORENA**  
TXISTULARIA

**G**oiz euritsu eta haizetsuan inork *Egun on!* esanda, sarri erantzuten zaio: *Ez dago ba oso egun onik*. Bizi dugun sakoneko krisi kultural honetan, ahaztu egin zaigu jatorrizko esanahia: *Egun on izan dezazula*. Ez du eguraldiarekin zerikusirik. Latinezko *augurium* hitzetik erakarririk *agur* esatean bezala, horrela ondoko pertsonari egun on izatea desio diogu. Bustitzen bada ere.

Irungo San Juan plaza beteta, San Martzial egunean, udaletxeko balkoira atera da Alkate Aita Santanua, Kolejio kontzejalizioko beste kide guztiekin batera, alarde parekidearen partaideak agurtu ditu eta bedeinkapena eman. *Urbi et orbi*.

Aldizkari honetan 1994ko maiatzean hasi nintzen artikuluak idazten. Agertu zen bigarrena, Irun eta Hondarribiko alardeen gatazka hasi berriaren ingurukoa, honela errematatu nuen:

“Bi pertsonaren artean aurreneko bereizketa sexuarengatik, arrazarengatik, sinismenengatik, itxura fisikoarengatik egiten duena gaizki ari da begiratzen. Berandu baino laster emakumezkoek Irungo eta Hondarribiko alardeetan gizonen antzera hartuko dute parte. Eta azkeneko boladan inozokeria gaiztoak esan dituzten asko, lotsatuta, isilik geratuko dira”.

Ia 30 urte pasa dira. Aita Santanuak, agurraren ondoren, perla hauek bota

ditu: “Udalaren gehiengo bi alardeetan dagoenez, gustatuko litzaidake haiek (EH Bildu eta Ahal Dugu) ere urrats hori egi-tea (...) herritar guztiak errespetatzeko. Pilota haien teilatuan dago”. Santanua ez da lotsatu eta isilik geratu. Erasora jokatu du. Erdipurdiko profeta naiz.

Agurra egiteko modu hainbat, *Diosala, Oles...* jada antigoalekotzat jotzen dira. Beste salutantzia era batzuk, aldiz, gora egin dute. *Kaixo* nabarmenena. Pepe Artola, idazle eta antzezle donostiarrak XIX. eta XX. mendeen artean eskaintzen zituen bakarrizketetan asma-tutako hitz xelebrea da: *¿Qué hay, txo?* Hortixe dator. Hasieran Donostiako kaletarren artean era bromosoan hedatu, geroago Gipuzkoa eta Bizkaian... Eremua eta erregistroak zabaldu egin zaizkio. Erdaldunen eraginez batez ere, eufonia jatorra duela iruditzen zaielako. *Ertzainak indarrez* taldekoek eta gure auzoko tabernetako zerbitzariak ere badakite. Askoz gehiago ez. Aita Santua, benetako, Euskal Herrira etorriko balitz, lehen hitza agian *Kaixo* esanaraziko liokete. *Tour* ederra egin du hitzak.

Aita Santanuak agurtu egin du alarde parekidea, alegia, etorkizun polita opa dio. Trogloditen alardekideei ere dago-kien moduan egin behar lieke: *Eup!* Eta guk Aita Santanua nola agurtu? *Aupa, hi!* Hori ere oso jatorra. ●

## Mundua so



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

**E**uskaldunok *thriller* giroan bizi al gara, begi larderiatsu batek epaituko bagintu bezala? Kementsuak eta ederrak garelako frogatzen gabiltza beti, eskaintzen dizkiguten perfekzio sozio-politikoaren “dikta” eta erduei plegatzen saiatuz. Originalak nahi genuke izan, baina azkenean, bihurtzea orok batera hartzea baizik ez gara ausartzen, itsusia delako, hori txikitatik ikasia dugu, norberak bere burua agertzea. Ideia bat ekartzen du batek eta gehiengoaren kontzientzia ona ez kolpatzeko, guztiok geureganatzen dugu. Eta gainera mundua so dagokigu...

Euskal Herriko zerga-ordaintzaileen

diruz, –mugaren bi aldeetakoak batu zaitzte–, ordaindua izan den Tourraren abiatzearen karietara, –aitor dut ikusgarria erraldoia zela eta Pogaçarren bizikleta zehatz aztertzeo aukera ukan nuela!– askotan entzun dugun erranaldia da: mundua so zegokigun aitzakian halatan, milioika ikurrina inarrosi ditugu bide bazterretan. Eta doi-doi Tourrak gure lurra utzi eta Iruñean piztu dira Sanferminetako suak, pantaila bidez hor ere, mundu osoa begira daukagula errepikatzen digutela, sano, planttako eta behar bezalako itxura eman dezagun.

Eta begiak begiari: bakea emadan! ●

# Ezkerra ez da gai etorkizuna amesteko



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

**H**auteskunde batzuk pasatu berri dira. Beste batzuetan gaude bete-betean. Hau idazten ari naizela, oraidik ez dakigu zer gertatuko den, aurrekoek islatzen zuten eskumaren igorak Espainiako Gobernuko giltza eman edo eskuratzeko zorian geldituko ote diren. Bigarrena gertatuta ere, eztabaiaezina da mundu mailako joera betean sartuta dagoela estatua.

Saso berri bat da. Bizitzen ari garen faktore anitzeko krisiak neoliberalismo globalaren amaiera iragartzen du. Eta apurka eta etengabea zabaltzen ari den eskuma berria lema hartzeko eta aldaketa bideratzeko prest azaldu da. Ez dirudi, zoritxarrez, beldurra baino printzipio hobearik dagoenik kontra egiteko.

Komunikabideen esku-hartzea, sare sozialen zeregina, *fake news* eta beste-lakoak, gerizpetan diren Bannon moduko ideologoak... azalpenak mila izan daitezke, baina horrek ez dio funtsezko galderari erantzunik ematen: zergatik ezkerra ez da kapaz atsekabe soziala bideratzeko?

Ezkerra ez da gai etorkizuna amesteko, ilusioa piztuko duen proiektu bat irudikatzen, hein handi batean etorkizuna bera kolokan dagoelako. Konturatu garenez, gaur gaurkoz, errazagoa

da munduaren amaieran pentsatzea, kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino. Bestelako mundu bat posible dela sinistu eta aldarrikatzen genuen, baina distopiak utopia jan du.

Ezintasun horrek badagoena salbartzera eraman du ezkerra desesperatuki. Pasa den mendean langileak bestelako formulazio askatzaile batzuetatik aldentzeko sortutako tresna, Ongizate Estatua, alegia, defendatzea omen da aukera posible bakarra. Hobe sistema hau gorde, nahiz eta ahulduta, etortzeko den balizko munstroaren mehatxuaren aurrean. Horrela, azken hamarkadak alternantziaren sasoia izan dira. Baina alternantzia ez da alternatiba, eta botere politiko-instituzionalak, bere hutsen, txaplatak jartzeko parada baino ez du ematen. Akaso nolabaiteko ordenari eusteko baliagarria izan zen noiz-bait, baina badirudi sistemari berari ere iraungitze-data helduko zaiola berandu baino lehen.

Alternantzia bermatzeko, botoak dira beharrezkoak. Eta bezain besteko boto lortzeko, badirudi alderdiek zentrorantz jo behar dutela, ahalik eta jende gehien berenganatzeko, ahalik eta mesfidantza gutxien sorraratzeko. Halaxe dio dotrinak. Baina zentrokoa izatea eta zentro politikoa izatea gau-

za ondo ezberdinak dira. Zentro politikoa, berak markatzen duen musikaren erritmorra beste guztiak dantzan jartzen dituen, alegia, momentu honetan ultraeskuma da.

Neoliberalismoak Keynesen liberalismoa eta horren asmo sozial onak –eta eztabaidagarriak– irentsi zituen bezala, ultraeskuma edo *alt-right* delakoa (*eskuma alternatiboa*, euren esanetan) eskuma “zibilizatua” (sic) irensten ari da. Eta, areago, pentsamolde berri oso bat ereiten. Garrantzitsua izan arren, funtsezkoenak ez dira siglak edo boterera heltzen diren ala ez, baizik eta iruditeriak eta kosmobisioak aldatzen ari direla. Jendartearen aldaketa eragiten ari dira, sistemaren aldaketa norabideratzeko.

Bien bitartean, historikoki errebel-dia, desobediencia eta transgresioa gorpuztu zituztenak defentsiban daude, zuzentasun politikoan tematuta. Sumin soziala eskuma alternatibo berri hau kapitalizatzen hasi da. Harrigarria bada ere, eurak dira orain, itxuraz, behinik behin, “antisistema”.

Estatua mundu mailako joera betean dagoela esan dut hasieran. Pentsa genezake gure bazter honetan salbu edo, behintzat, aparte gaudela. Nahi duguna pentsa genezake, baita ez pentsatu ere. ●



# Ongi eTOURri Mister Marshall



**ROSER ESPELT ALBA**  
EKONOMIALARIA

**J**oan da Frantziako Tourra Euskal Herritik, eta zorionez, baita berekin zekarren publizitate kanpaina erraldoia ere. Kanpaina gehiegizkoa iruditu dakiguke, baina *El Correo* irakurritz gero, txiki ere geratu zaigu. Izan ere, ustez, ehun milioitik gorako etekinak ekarriko zituen, erakundeen 12 milioiko inbertsioaren truke. Negozio borobila, alajaina!

Ez da lehenengo aldia mota honetako ekitaldi erraldoien harira diskurtso hori entzuten duguna: kirol ekitaldiak, feriak edota BBK Live bera ditugu horren adibide. Baina ekitaldiak pasatzen dira, Tourra bezala, eta gu gero eta pobreagoak gara. Alde batera utzita halako ekitaldiek dakartzaten etekin ekonomikoaren eta milioien kalkuluen inguruko zalantzak, halako ekimenek helburu bat eta bakarra dute: turismoan oinarrituriko eredu ekonomikoaren gorakada. Teorian, eredu horrek diru eta aberastasun fluxu handiak dakartza, dena onura. Baina nola funtzionatzen du egiazki turismoan ekonomian?

Hasteko, jakina da turismoan egituratutako lanpostuak kualifikazio baxukoak, hots, soldata baxukoak direla, eta gehienetan, aldi baterakoak. Aipatutako

Teorian, turismoan oinarritutako eredu ekonomikoak diru eta aberastasun fluxu handiak dakartza, dena onura. Baina nola funtzionatzen du egiazki turismoan ekonomian?

milioikada horiek ez badoaz gure soldatetara, nora joaten dira? Zer dago soldata horien ifrentzuan? Kapital-jabeen etekina. Etekin horiek ez dira gizarte osoarekin banatzen; aitzitik, egungo eredu ekonomikoa gero eta gehiago indartzera bideratzen dira. Normalean, inbertsio funts handietatik datoz, etxebizitza-inbertsioan oinarrituta eta apenas

zergarik ordaintzen ez dutenak. Herri-tarren interesen mesederako inbertitu beharrean, espekulazioan eta prekari-tatean oinarritutako sektoreetan inbertitzen da. Adibide garbiak dira Mallorca, Menorca, Valentziar Herrialdea edo Kanarietan gertatutakoak: ekonomia 50 urtez turismoan oinarritu ostean, azken 30 urteetan *per capita* errenta gutxien hazi den Espainiako Estatuko eremuak dira, I+Gko inbertsio txikiena eta desberdintasun handiena dituztenak.

Behar al genituen Tourra eta bere milioiak? Turismoa behar al dugu? Turismoa datozen milioikadek ez dute zertan esan nahi lurralde horiek turismoaren mendean egon behar dutenik. Hori esatea, esklaboek beraien ugazaben mende egon behar dutela, edo langileak enpresariei esker bizi direla esatea bezalakoa litzateke. Ikuspegi mugatu batean oinarritutako baieztapenak dira (turismoak diru asko dakar), baina sistematikoki baztertzen ditu dauden alternatibak (aberastasuna ekoizteko beste eredu batzuk daudela, ekitatean eta ingurumenarekiko jasangarritasunean oinarrituta). Ez, ez gara gu Tourrarekin eskertuta egon behar dugunak, baizik eta aberatsek bakarrik. ●



**aleka**

**EUSKAL HERRIKO  
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria  
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE  
HAZI ESKAERA!**

[www.aleka.eus](http://www.aleka.eus)

- BASERRITARRAK SAREAN
- AGROEKOLOGIA
- BIOANIZTASUNA
- BERTAKO EKOIZPENA






# Suteei aurre egiteko, auzolana eta elkar-laguntza

lazko udan suteek panorama iluna utzi zuten Nafarroan, argazkiko San Martin Unxen lurren %95 kiskali zuten. Asko hitz egin zen hedabideetan suteek eragindako kalteez, baina nola aurre egin gero eta sute gehiago eman daitezkeen testuinguruari? Nafarroako Gobernuaren interes falta salatu dute erreportaje honetako elkarrizketatuek; auzolanak ekarriko du irtenbidea?









**H** amahiru hilabete dira suak Nafarroa hartu eta kalte izugarriak eragin zituenetik. Inoiz erregistratutako sute-rik handiena izan zen iazkoa: 10.000 hektarea baino gehiago kiskali zituen, eta 15.000 hektarea ingurutan kalteak eragin. Ideia bat egiteko, Arabak guztira 9.143 hektarea ditu. San Martin Unx, Uxue, Legarda, Muruzabal, Obanos, Arga, Girgillao eta Arraiza izan ziren herri kaltetuenetakoak. Kalte humanoak, zorionez, ez ziren handiak izan.

San Martin Unxen hiru egunez iraun zuen suteak eta lurren %95 kiskali zen, baina Javier Leoz alkateak adierazi zuen herria “azken unean” salbatu, baina salbatu zutela.

Suteari aurre egiteko eta eragin-dako kalteak konpontzeko 53 milioi euro gastatu dira. Xabier Unzue abeltzainaren esanetan, askoz ere eraginkorragoa litzateke prebentzioan inbertitzea: “Imajinatu horren erdia erabiltzen dela urtero prebentziorako, ez litzateke horrelako hondamendirik gertatuko”.

---

Nafarroako Gobernuaren neurri nagusia udalei ardura pasatzea izan da, prebentzio neurriak ezartzeko eskatu diete, baina herri txiki-txiki udalen baliabideak oso urriak dira

### GOBERNUAREN PLANA

Nafarroako Gobernua, ordea, beranduzago hasi da ohartzen sute batek eragin dezakeenaz, sutearen ondorengo hilabeteetan 2023ko Gobernu Plana adostu baitzuen. Suteak saihestu, zaindu eta itzaltzeko neurriak erabaki zituen. 2022ko abuztuan onartu zen Espainiako Estatuko errege dekretua eta Nafarroako Gobernuak lurraldera egokitu zuen. Errege dekretuak, besteak beste, su-

teak eragin ditzaketan makinak lurrean erabiltzea debekatu zuen, baita lehorte garaian uzta jasotzea ere. Orain, baina, salbuespenak jarri dira: ezingo da uzta bildu 42°C-tik gora, eta alerta larria eta horia denean biltze lanak egitea posible izango da, beti ere prebentzio neurriak hartzen badira. Horregatik, herri-lan eta azpiegituren zuzendaritza nagusiak ikuskatu beharko ditu lan horiek, eta baldintzen arabera egokitu.

Neurriak herritarren interesekoak izan daitezke edo ez, eta, batez ere, suteak ekiditeko eraginkorrak izan daitezke edo ez. Gaur-gaurkoz, gure solaskideen arabera, begi-bistakoa da suteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak orain arte erakutsi duen borondate politikoa oso txikia dela. Aztertu besterik ez dago suteei aurre egiteko azken plana noizkoa den; hain justu, 2013koa da argitaratu berri dutenaren aurrekoa, eta hori baino lehenago indarrean zegoena 1999. urtekoa zen. Bide beretik, biztanle gutxi dagoen herrietan inbertitzea zenbateraino den errentagarria galdegin du Unzuek, eta salatu du “herriek garrantzi gutxi” dutela gaur egun.





“Jendeak laguntza behar zuen eta laguntza eskaini genion”. Errigoraren kanpainak 90.000 euro biltzea lortu zuen, eta diru hori bi herriren artean inbertitzea erabaki zuten: Uxue eta San Martin Unx (ezkerreko argazkian, proiektuaren aurkezpena San Martin Unxen). Suteen prebentziorako dekalogo bat osatu zuten eta auzolanari ekin zioten. / ARGAZKIAK: ERRIGORA

Gobernuaren neurri nagusia udalei ardura pasatzea izan da, prebentzio neurriak ezartzeko eskatu diete. Udalek bide berbera jarraituko dute: neurriak eta arauak ezartzea. Segur aski, onartuko dute bideak eta lurrak garbi eduki behar direla, suteak moztu eta suhiltzaileek irisgarritasuna izan dezaten adibidez, baina herri txikietako udalen baliabideak oso urriak dira. Abeltzainak adibidea jarri du: “Udalak lurjabeen aginduko die haien lurrak garbitu ditzatela, baina 80 urteko norbait lurreko sasiak garbitzen hasiko da? Ez dut uste. Zerbait gehiago behar da, baliabide gehiago”.

Ibai Sueskun Errigorako kidea eta Miriam Otxotorena CPAEN-NNPEK nekazari ekologikoen lehendakari ohiak Nafarroako Gobernuaren neurriak “minimoak eta burokrazia askokoak” direla azpimarratu dute. Bide batez, lehentasun falta salatu du Unzuek: “Suteen inguruan dirutza mugitzen da eta espektakulu propagandistiko hutsa eragiten dute. Orduan politikariek diote suteen kontra daudela, baina ez daukat hain garbi hala denik”.

Prebentzio garrantzitsuena  
abeltzaintza dela  
azpimarratu dute  
Miriam Otxotorenak eta  
Xabier Unzuek,  
horri esker landa eremua  
“garbi eta osasuntsu”  
mantentzen baita

### ERRIGORAREN AUZOLAN ERRALDOIA

Suteenugarretatik eta Nafarroako Gobernuaren borondate politiko faltatik eraiki zuten auzolanean proiektu eraldatzailea Errigoratik, euskara eta auzolana ardatz duen herri-ekimene-tik. Sueskunen esanetan, ez zen hain

afera korapilatsua: “Jendeak laguntza behar zuen eta laguntza eskaini genion”. 2022ko uztailaren 3an prentsaurreko bidez azaldu zuten diru-bilketa bat martxan jarriko zutela eta lortutako dirua gestionatzeko adituen mahai bat osatuko zutela; tartean, suhiltzaile, basozain, nekazari eta abar.

Guztira 90.000 euro inguru lortu zituzten, eta diru hori inbertitzeko sei espezialistez osatutako mahaia jarri zuten martxan: Miriam Otxotorena (CPAEN-NNPEK kontseiluko lehendakaria), Mikel Tabar (basozaina), Victor Rubio (suhiltzailea), Patxiku Irisarri (Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak Nafarroako kidea), Juan Carlos Castillo (Peraltako alkatea eta Nafarroako kontzeju eta herrien zuzendaria) eta Imanol Ibero (Nekazaria eta Errigorako kidea).

Diru bi herriren artean inbertitzea erabaki zuten: Uxue eta San Martin Unx. Suteen prebentziorako dekalogo bat osatu zuten, bi herri horiek erreferente izan daitezten eta Nafarroako gainontzeko herrietan ere baliatu dezaten. Esan behar da ez zirela ausaz aukeratu herri horiek, eragin handia izan baitzuen su-

teak bertan, eta gainera herritarrek berondate handia erakutsi zuten proiektua martxan jartzeko.

Hiru premisa ezarri zituzten suteen prebentziorako: abeltzaintza estentsiboa bultzatzea, herri edo nukleoak babestea eta gerriko edo harresi berdeak sortzea. Lehenak landa eremua garbi mantentzen laguntzen du, zaborrik pilatu gabe; bigarrenak eta hirugarrenak, herriak eta landa eremua banandu eta batak bestearengandik babesten ditu.

Dekalogo osatzeko, lehenik eta behin, sistematikoki sua nondik etorri daitekeen aztertu zuten, eta zein izan zitekeen herri horien puntu ahulena. Uxuen, adibidez, herriak sarrera bakarra du, errepide bakarra, eta suteak sarrera hori galarazten badu ezin dute suhiltzaileek sartu. Horregatik, beste sarrera bat egiteko lanei ekin zieten.

Horrez gain, landa eremuen garbiketarak jarri zituzten martxan, zaborra egon ez dadin eta suak etorkizunean hortik pasa behar badu zailtasun gehiago izan ditzan. Zein landare mota jarri ere aztertu zuten, izan ere, gariak olibondoekin alderatuta askoz errazago zabaltzen du sua. Hori dela eta, lehentasuna eman zieten olibondoak herrietatik gertu landatu eta erdiguneak babesteari.



Pirinioetan eski estazioak jartzea, haize errotak eraikitzea, eguzki plakak jartzeko proiektuak, ur presak egitea, turismo masifikatua... Herriak gaur egun ustiatzeko baino ez direla erabiltzen dio Unzue abeltzainak

### AZKEN URTEETAN JARAMONIK EZ

Landa eremuan gero eta biztanle gutxiago bizi da, eta joera areagotu egingo dela azaldu du Otxotorenak. Unzuereen esanetan gobernuek herrietan gutxi inbertitzea eta bertan biztanle gero eta gutxiago bizitzea "sorgin gorpila" da. Otxotorenaren hitzetan, landa eremuan "ohitura batzuk galdu egin dira, bai administrazio aldetik baita gizarte modura ere: herri lurretan - guztion lurretan- ez da inbertsiorik egin, batzuetan animaliak sartu dira baina besteetan ez, itxiturak sarri ez dira egokiak, animalientzako ura falta da eta etxeak landa eremuetatik gertu eraiki ditugu".

Aipatutako ohitura aldaketek eragina izan dute suteetan, eta etorkizunean ere izango dute. Prebentzio garrantzitsuena abeltzaintza dela azpimarratu dute Miriam Otxotorenak eta Xabier Unzuek, horri esker landa eremua "garbi eta osasuntsu" mantentzen baita. Hala ere, prebentzio neurriek ez dituzte suteak %100 saihesten, hortaz, suteen eraginak ahalik eta txikienak izateko neurriak ezartzea ere premiazkoa da. Esate baterako, herri txikietan guztien eskura egongo diren mahukak jartzea neurri bat izan daiteke. Zer esanik ez, formakuntza, biztanleek zer bai eta zer ez duten egin behar azaltzea oinarrizkoa da.

### HERRIEN USTIAKETA

"Ulertu behar da landa eremuak edo herriek hiriari ekarpena egiten diotela; eta aldiz, alderantziz oro har ez dela gertatzen", azaldu du Xabier Unzue abeltzainak. Gehitu du herriek elikadura, energia (haize errotak, eguzki plakak...) eta zaborrak bildu ohi dituztela, eta trukean "kontsiderazio eta errespetu" gutxi jasotzen dutela. Bide beretik, herriaren ahotsa ez dela entzuten eta baloratzen uste du Otxotorenak.

Horren adibide dira Pirinioetan eski estazioak jartzea, haize errotak eraikitzea, eguzki plakak jartzeko proiektuak, ur presak egitea, turismo masifikatua... Herriak gaur egun ustiatzeko baino ez direla erabiltzen dio Unzuek, eta etxebizitzekin gertatzen dena azaldu du: "Landa eremuan etxebizitzekin dugun arazoa larria da, dirudunak etortzen dira eta bertako baserriak erosi eta erreformatzen dituzte ondoren saltzeko. Baina nork erosiko du etxe bat 500.000 eurotan herri txiki batean? Normala iruditzen zait hirieta-rala alde egitea".

Dena dela, gizartearen jarrera aldatuta eta kontzientziazioa ikusi dute Unzuek eta Otxotorenak, batik bat COVID-19 gaixotasunak eta suteak eraginda. "Natura eta gizartea" orekatu egin behar direla dio Otxotorenak eta azpimarratu du horretarako ezinbestekoa dela herri eta hirien arteko zubiak eraikitzea.


Jarrera aldaketaren erakusle da Errigorak martxan jarritako diru-bilketa eta prebentzio neurriek izan duten harrera bikaina. Diru asko biltzeaz gain, herritar ugarik beren alea jarri dute proiektuan parte hartzeko. Miriam Otxotorenak dio babes ekonomikoa garrantzitsua dela, baina batik bat, "gehien bultzatzen" duena babes moralala dela.

### ISILIK ETA GELDIRIK EZ GERATZEKO PREMIA

"Gizarteak beti espero du okerrago egon daitekeela eta horregatik isilik gaude", dio Unzuek. Hamarkada batzuk atzera egingo dugula uste du, prezioak gora doazelako baina soldatak ez. "Jateko lan egitera bueltatuko gara, 1960ko hamarkadan bezalaxe". Jarrera aldatuta bat sustatzeko, Errigora bezalako proiektuak beharrezkoak direla dio, indibidualismotik salto egiteko aukera eskaintzen baitute. ●



# Wimbledongo araudi orbangabea



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**ondres, 1877ko uztaila. All England Lawn Tennis and Croquet Club elkarteak antolatuta, Wimbledon tenis txapelketa jokatu zen lehenengoz, munduko tenis lehiaketarik zaharrena. Handik zazpi urtera, 1884an emakumezkoek ere parte hartu ahal izan zuten. Eta aurten amaitu berri den ekitaldian, sortu eta ia mende eta erdira, Wimblendongo jantzi-araudi zorrotza pixka bat bigundu dute: emakumezko tenislariak zuriak ez diren kuleroak jantzi ahal izan dituzte.

Lehiaketa tradizionalen badira oraindik emakumei bereziki eragiten dieten arauak. Esaterako, epaileek puntuaketa ematean abizen hutsez aipatzen dituzte gizonezko jokalariek; baina emakumezko tenislarien abizenaren aurretik *Miss* edo *Mrs* (andereñoa edo anderea) jarri behar dute beti, jokalaria ezkondua dagoen ala ez uneoro gogoraraztea ezinbestekoa omen delako, nonbait.

Baina tenislariak goitik behera zuriz janztera derrigortzen dituen arau zorrotzak emakume zein gizonei eragiten die, eta klasismo hutsez sortu zuten. Lehiaketa sortu zenean, tenisa goi mailako klaseentzako kirola zen, eta zuria goi mailako klaseentzako kolorea. Langileek uneoro lurrez, olio edo izerdiz zikintzeko arriskua zuten, zuriz janztea ez zen batere praktikoa. Tenisean aritzean aberatsek ere izerdia botatzen zuten, baina bazuten arropa nork garbitu eta nahi adina jantzi zuri erosteko dirua. Hala, Wimbledon sortu zuen klubak eli-



GEORGE W. HALES

Gussie Moran tenislaria Wimbledon lehiaketako 1949ko ekitaldian, parpailadun eta koloredun kuleroak jantzita.

teen eta herri xehearen arteko bereizketa garbia egin nahi izan zuen jantzi-kode zorrotza ezarri zuenean.

1949an, Gussie Moran (1923-2013) tenislari estatubatuarrak guztiz zuriak ez ziren parpailadun kuleroak jantzi zituen gona zuriaren azpian. Argazkilariek tenislariaren edozein mugimendu aprobe txatu zuten kuleroak erakusten zituzten argazkiak atera eta argitaratzeko. Eskandalua ingeles parlamentura ere iritsi zen eta Wimbledon araudia zehaztu zuen: emakumeek ezin zuten parpailadun edo koloredun kulero edo kulotik jantzi. Gerora Moranek aitortu zuenez, “jota utzi

ninduen horrek, emozionalki ezin izan nuen kudeatu”.

Orduz geroztik, emakumeek arau hori bertan behera uztea eskatu dute etengabe, kuleroak hilekoarengatik zikintzeko arriskuak estresa eragiten diela eta errendimenduan behera egitea ekar dezakeela argudiatuz. Azkenean, 2023an lortu berri dute kulero ilunak janzteko baimena, baina ñabardura bat erantsi diote: barruko galtzek ezin dute gona baino luzeagoa izan, geldirik daudenean behintzat ikus ez daitezten. Neurri “askatzailearen” atzean, emakumei gehiegi ez mugitzeko mezua helarazi nahiko baliete bezala. ●

## Aizkora erraldoien izena eta izana

Kent-eko (Ingalaterra) aztarnategi batean duela 300.000 urteko hainbat “aizkora erraldoi” aurkitu dituzte. Suharrizko piezak ez dira 30 cm-ra iristen, baina, teknikoki, 22 cm baino gehiago neurtzen badute “erraldoi” esaten zaie. “Aizkora” esatea, ordea, ez da batere zehatza. For-

ma horretako lanabesak haragia mozteko erabiltzen zituztela uste dute adituek, baina Kentekoak hain handiak izanik, “kosta egiten da erraz erabiltzen zituztela pentsatzea”, Letty Ingrey arkeologoren ustez. “Agian pieza horien funtzioa ez zen hain praktikoa, sinbolikoa baizik”. ●



“ ”

# *Uste zen hizkuntza sartzen bazenuen hezkuntza sisteman jendeak hitz egingo zuela, baina ez*

Anik Nandi, soziolinguista

Anik Nandi Indiako soziolinguista da, Mendebaldeko Bengalan jaioa. Gaur egun doktoratu ondoko ikertzailea da EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Sailean, eta kolaboratzailea, berriz, Galiziako Errege Akademiako (Real Academia Galega) Soziolinguistika Mintegian eta Herbehereetako Leiden University Centre for Linguistics-en. Hizkuntza-politikak, hizkuntza gutxiak, Indiako eta Europako soziolinguistika, eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntza dira bere ikerketa gaiak.

 CIRA CRESPO  DOS POR DOS

**Irakurri dizudan artikuluetako batean diozunez, denok dugu geure hizkuntza-historia. Nik beste hau erantsiko nuke: gure hizkuntza-historiak gure identitateak konfiguratu eta markatzen ditu. Zein da zure hizkuntza-historia?**

Bengalieraz baino egiten ez zen etxe batean jaio nintzen eta, ondoren, eskolan eta institutuan, ingelesa ikasi nuen. 12 urterekin *Hamabi klasiko gazteentzat* liburua irakurri nuen, bengalieraz, eta han On Kixoteren istorioa ezagutu nuen. Istorio interesgarria iruditu zitzaidan. Kixoteren zoramen hori oso hurbilekoa gertatu zitzaidan, hainbeste ikasi ondo-

ren gizon hura nola zoratu zen... eta horregatik hasi nintzen espainiera ikasten Kalkutan, karrera egin ondoren.

Ingeles Filologia ikasitakoa naiz. Unibertsitatean *Language Death* liburua irakurri nuen. “Heriotza” hitzaren dramatismoak hunkitu egin ninduen, eta beste kontu batzuei buruz pentsarazi zidan, hala nola, hizkuntza-inperialismoaz. Nire hizkuntza-esperientzia ere hor da, gizarte eleaniztun batean bizi izan naiz eta badakit gizarte bat bera ere ez dela homogenea, eta beti dagoela hierarkia bat hizkuntzen artean. Hierarkia horren azterketak sortzen dit interesik handiena.

2007an Ourensera joan nintzen Arte eta Diseinu zentro batera. Nire lana ikastaro bat egitea eta laguntzea zen.

**Galiziera ikasi zenuen han, eta hizkuntza-politikez arduratu zinen.**

25 urte nituen eta, berez, nire gaztelania hobetzera joan nintzen Ourensera. Errealitate elebidun horretan, Ourense hirian, zeharo harritu ninduen antzemateak inguruko herrixketatik zetozen neska-mutil askok nola zuten gaztelaniarako joera. Oso deigarria iruditu zitzaidan, heziketa galizieraz jasoak baitziren, baina galegoak gizarte-estigma handia du.





### **Eta hori ez da Indian gertatzen?**

Bada, nire hizkuntzarekin, bengalierarekin, ez da gertatzen; baina orain, Europako testuinguruetan antzeko egoerak aztertu ondoren, konturatzen naiz agian beste hizkuntza indiar batzuekin gertatzen dela, bai. Askotan, ikaskuntza izaten da egiazkotzat jotzen genituen gauza asko desikasteko prozesua izaten da.

**Galiziako hizkuntza politikak ikertzen aritu zara. Kontatu pixka bat**

“ ”

***Aztertu ditudan  
gobarnuetako ia bakar  
batek ere ez du gustuko  
hizkuntza politiken  
ebaluazioak egitea***

### **egoera zein izan den frankismoaren ondoren.**

1983an lehen lege bat egin zen, "intentsitate txikiko" deitzen dugun hizkuntza politika egin nahi zuena. 2004ra arte, antzera mantendu zen. Orduan, gobernu aurrerakoi bat iritsi zenean, paperaren gainean idatzita zegoen, baina egiten ez zen politika eraginkortasunez ezartzen saiatu ziren, galzieren egoera hobetzeko.

### **Nola ezartzen da hizkuntza politika bat modu eraginkorrean?**

Adibidez, nola funtzionatzen duen ebaluatu behar da. Bitxia bada ere, aztertu ditudan gobernuetako ia bakar batek ere ez du gustuko hizkuntza politiken ebaluazioak egitea.

Izan ere, prozesu oso politizatuak izaten da. Hizkuntza politikak *silent agenda* (agenda ezkutua) du beti. Boterean parte hartu nahi duten taldeak beren kartak jokatzeko ari dira etengabe. Eta komeni zaizkien moduko diskurtsoak erabiltzen dituzte. Esaterako, indiar gisa, harrigarria da niretzat ikustea nola Galiziako gobernu kontserbadoreak galzieren "inposaketaren" ideiaz hitz egiten dien galzietari euren! Eta interesgarria: diskurtsoa erosi egin diote.

### **Galizian, 2009an gobernu kontserbadorea heldu zen berriz ere boterera, eta eleniztasunaren dekretua jarri zen abian. Ingelesez ordu gehiago, hizkuntza gutxituan gutxiago egitearen truke. Estatu mailako eraso planifikatu bati buruz hitz egiten ausartuko nintzateke, hizkuntza gutxituetan eskolatzeko orduak murriztea duena helburu.**

Bai, laburpen ona da. 2009ko eleaniztasunaren dekretua ezarri ondoren, oso portzentaje kezagarriak ateratu dira. Galiziako Estatistika Institutuak 2014an argitaraturiko datuek diotenez, 2008-2013 bitartean galzieren ezagutzaren eta erabileraren inguruko inoizko daturik apalena metatu dira; inoiz ez da lehenago galzietaz hitz egiten ez duen hainbeste haur izan, %49. Are gehiago, ikasleen %30ak ez du galegoa behar bezala ezagutzen.

Bestalde, globalizazio prozesuaren barruan ulertu behar da ingelesaren sarrera eta hau irakaskuntzan sartzeko interesa, neoliberalismo puru eta gogorrean. Gainera, ordu kopuru bat ingelese bezain hizkuntza indartsuan sartzeko erabakitzen baduzu, inork ez du ezetz

esango, nahiz eta gurasoak bertako hizkuntza gutxituen alde egon. Baina nondik aterako ditugu orduak? Orduak direnak dira: %30 galizieraz, %30 ingelesez eta %30 gaztelaniaz. Galdera da, beharrezkoa al da orduen %30 gaztelaniaz izatea?

#### Hori tabua da.

Noski, horri buruz ezin duzu hitz egin ere egin. Hau da, ingelesa saltzea errazagoa da, inork ezin baitu ukatu ingelesaren beharra egungo bizitzan. Baina %30 horrek ez du ziurtatzen ingelesa ikasiko dutenik. Uste dut ingelesa horrela ikastea ez dela eraginkorra. Azkenean ez dute ez ingelesik, ez ikasgairik ikasten. Atzerriko hizkuntzak hizkuntza gisa ikastearen alde nago, baina ez ikasteko bide gisa, hizkuntza hori hitz egiten ez den leku batean. Arreta gehien behar duen hizkuntza zaindu behar da, kasu honetan euskara edo galegoa. Uste dut euskararen oinarritutako hezkuntza egin beharko litzatekeela, eta gero beste hizkuntza batzuk hartu. Eta gaztelania ez ikasteko modurik ez dagoela ere argi izatea. Ikasleek gaztelaniaz nahi gabe ere ikasiko dute.

#### Ba al dago aukerarik estatu batean hizkuntza gutxituentzat? Irteerarik badago?

Ezin da erantzunik eman, ez baita ez zuri, ez beltz. Ideia batzuk izan ditzakegu: adibidez, gizartean hizkuntza-kontzientzia sortzeko beharrezkoa dela. Eman nuen hitzaldi batean, ikasle batzuek bazuten kontzientzia pixka bat eta esaten zidaten: frankismoarena da errua. Eta, hein batean, egia da, baina nik geure paperaz hitz egin nahi dut: denok dugu agentzia edo ekintzarako gaitasuna, eta garrantzitsua da geure buruari galdetzea: zer egiten ari gara egoera aldatzeko? Erruari buruz hitz egin daiteke, baina arduraren bat ere hartu behar da.

Adibidez, Galiziako guraso batzuek, umeek galizieraz egin dezaten, galizieraz erakusten duten ikastetxe batera eramaten dituzte, galizierazko materialak erabiltzen dituzte... baina, halere, haien artean ez dute galizieraz hitz egiten. Giro bat sortzea garrantzitsua da, baina hitz egiten ere saiatu behar da. Guraso horiek badakite galizieraz, baina ez dute etxean erabiltzen. Hezkuntza sistemak lan guztia egitea espero dute.

Espanian, hizkuntza politikak hezkuntza-sisteman oinarritu izan dira beti. Uste zen, zuk hizkuntza hezkuntza-sisteman sartze bazenuen, jendeak hizkuntza hori hitz egingo zuela, eta ez; izan ere,

“ ”

**Orduak direnak dira:**

**%30 galizieraz,**

**%30 ingelesez eta**

**%30 gaztelaniaz.**

**Galdera da: beharrezkoa**

**al da orduen %30**

**gaztelaniaz izatea?**

hizkuntza politikak ez dira hezkuntza sistemaren eremura mugatzen. Zulo bat itxi nahi duzu baina beste bati erreparatu gabe. Nire ikerketa-lerro nagusia zulo txiki horien analisisa da; ez egoera makroarena, mikroena baizik. *Bottom-up* (behetik gora) ikerketa da.

#### Zer leku du familiak hizkuntza politiketan?

Familia da hizkuntza politiketan aktore nagusia. Hainbat gizabanako eguneroko lanean batzen eta negoziatzen diren tokia da. Etxea etengabeko negoziatzeorako tesuinguru konplexua da.

#### Zergatik erabiltzen duzu “erresistentzia-politika” terminoa familien barruko politikez hitz egiteko?

Erresistentzia beharrezkoa da batzuetan, ez zaudenean ados politika batekin, politika linguistikoen kasuan ere bai. Erabil dezagun garbitasun politiken adibidea: zure kalea garbi nahi baduzu, zer egingo duzu? Pertsona bati ordain diezaiokizu, udalerriko garbitzaileak etorri arte itxaron edo, bestela, erratza atera eta kalea zuk zeuk garbitu. Hirugarren adibidea erresistentziarena da. Egoera hori kudeatzeko agentzia duzula ikusten duzu, eta egin egiten duzu. Nola egiten duzun?





Beste elementu batzuk ere kontuan hartu behar dira: faktore soziolinguistikoa, soziokulturala, ekonomikoa. Agentzia, egin dezakezuna edo egin ezin duzuna, zure esku dagoena edo ez, desberdina da kasu bakoitzean. Baina gizarteko kide garen aldetik, guztiok ditugu botererako sarbide batzuk.

Hizkuntza politika errazena hezkuntza sistematik datorrena da, European haur guztiak hezkuntza sistematik pasatzen direlako, eta gobernu-ideologia batzuk iraunarazteko errazagoa delako. Hizkuntza-idea bat ezartzeko errazena da.

**Zure adibideari jarraituz, beste batzuek kalea garbitzea izango litzateke, baina guk geuk ere garbitu dezakegu.**

Bai, baditugu ideia horiei aurre egiteko eta gure komunikazioak berrezartzeko tresnak.

**Gaztelaniaz mintzo den ingurunean bizi diren familia batzuen etxeko politika ikertu duzu. Zehazki, honakoa idatzi duzu: "Familia horiek seme-alabak prestatzen dituzte ez soilik gaztelaniak etxetik kanpo duen nagusitasunari aurre egiteko; horrez gain, emozioen indarra eta hizkuntza gaitasunak ere lantzen dituzte egoera eramangarri izan dadin beharrezko tresna gisa". Gertatzen den arren inork hitz egiten ez duen gauza bati hitzak jarri dizkiozu: haurrei hizkuntza gutxitua hitz egiteak dakartzkien integrazio arazoak, testuinguruen arabera.**

Behin, ama bat negarrez hasi zitzaidan. Alabak esan omen zion jada heldua zela -10 urte zituen- eta nahi zuena egin zezakeela: "Nire urtebetetze eguneko gonbidapenak gaztelaniaz egingo ditut". Haurrek egoera gogorak aurkitzen dituzte ikastetxean, familia galiziar hiztunetatik baldin badatoz. Ez zaio erraza egiten galiziar hiztun gisa integratzea.

**Mikroindarkeriaz hitz egin daiteke?**

Bai, erabat. Zein da hizkuntza indarkeria-



“ ”

**Australian ikusi da beren hizkuntza biziberritzeko prozesuak indigena taldeei lagungarri zaizkiela osasun arazoak gainditzeko**

ren definizioa? Hitzezko indarkeria da. Eta zuk, guraso zaren aldetik, ezin duzu joan zure seme-alabaren kontra egiten duen pertsona bakoitzaren aurka. Behar-ko duzu samurtasun eta maitasun-mas-kara bat sortu harentzako, adimen emozionala eman beharko diozu. Ama hark esaten zuen: "Ez da haiei irakastea eta kito. Haiek lagundu behar dituzu".

**Badirudi hemen hizkuntza gutxituen auzia kultur auzi hutsa dela baina, izan, hizkuntzak zerikusi handia du giza eskubideekin.**

Ikerketa asko dira lotzen dituztenak hizkuntza berreskurapena eta buru osasuna edo gizarte ongizatea. Adibidez, Kanadako indigenen taldeen artean.

Diabetes gaixoen ehuneko handiak dituzte eta, batez ere, suizidio tasa handiak. Bada, han ikusi zen bazela lotura bat autolesioen eta autogorrotaren artean, eta identitatearen eta hizkuntza-aren galeraren artean. Ezin duzu berdin jarraitu eskolan, azpitik sentitzen zara... Gurpil zoroa da, eta azkenean pertsonaren barrenak jaten ditu, eta batzuetan hil egiten du.

Australian, berriz, ikusi da beren hizkuntza (oso minorizatua) biziberritzeko prozesuak indigena taldeei lagungarri zaizkiela osasun arazoak gainditzeko. Komunitate baten egoera linguistikoa hobetzearekin, komunitateko kideen osasunak ere hobera egiten du. Garrantzia ematen die, taldeko kide izateko prozesuan eta autoestimuan laguntzen die. Hizkuntza biziberritzea hitz egiten duzun hizkuntza baino askoz gehiago da. Hizkuntza funtsezkoa da identitate kolektiboetan. Nola hobetu daiteke egoera? Maila pertsonalean aldaketak egingez, eta gero talde mailan.

**Bai, baina batzuetan zaila da erabakiren bat hartzea, adibidez, seme-alabak egoera zailtara bultzatzea.**

Bai, baina horixe da gure seme-alabengatik egin dezakegun onena. Mundua ez da desagertuko guk begiak itxiagatik. ●

BABESLEA:

✓ 305.000 biztanleko lurgune euskalduna

✓ 101 udal

**arnasa gara**

**euskaraz gara**

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".

Jon Maia Soria



## EKOFEMINISMOA

# Haziz hazi, urratsez urrats, Euskal Herrian ere lurreratuz doan mugimendua

Udako Euskal Unibertsitatearen baitan, egun osoko jardunaldia antolatu zuten ekaina bukaeran Gasteizko Sumendi espazio autogestionatuan Mirene Begiristainek eta Marta Barbak: *Ekofeminismoak konpos(t)atzen Euskal Herrian*. Ekofeminismoari dagokionez, Euskal Herri mailan duela bizpahiru urte abiatu-rik haunarketaren baitan kokatu zuten hitzordua: "Aletxo bat gehiago da". Kolektibotasunetik eta kolektiboki heldu nahi diote Euskal Herriko mugimendu ekofeminista osatzeko erronkari.

## Krisi ekosoziala hobeto irakurtzeko betaurrekoak

 ESTITXU EIZAGIRRE

**E**uskal Herri mailako mugimendu ekofeministaz kolektiboki hausnartzea zuten xede *Ekofeminismoak konpos(t)atzen Euskal Herrian* jardunaldian bildutakoek. Ekologismoa eta feminismoa uztartzen ditu mugimendu honek, oinarri hartuta bai natura eta bai emakumea zapaltzen dituen sistema bera dela.

Marta Barbak aitortza egin zion Etxaldeko Emakumeak taldeari, "haiek baitira publikoki euskaraz ekofeminismoari buruz proposamena egin duten bakkarrak eta ekofeminismoan erabat presente egon behar duelako nekazari-tzaren eta landa eremuaren ikuspegiak".

Mirene Begiristainek azaldu zuen azken bi urteetan ekofeminismoari buruzko interesa azkartu egin dela Euskal Herrian: duela bi urte Usurbilen jardunaldiak antolatu zituzten UEUren eta *Jakinen* artean, krisi ekologikoari buruz, eta horren barruan ekofeminismoaz mahai-ingurua egin zuten, baita *Jakinen* artikulua bat argitaratu ere. Ondoren Euskal Herriko Neska Gazteekin Baztanen saio batzuk egin ziren, Emagineko barne lanketa bat ere egin zen, Elhuyarrek barne hausnarketa egin zuen... Begiristain: "Donostiako Antropologia Feministako irakurketa taldean konpromisoa hartu genuen beste eskaera batzuei erantzuteko: Usurbilen zaintza sistemaren inguruan egiten ari diren lanketan ekofeminismoaren ildoari ere heldu nahi diote, Hernaniko Plaza Feministan ere bai, STEILAS sindikatua ekofeminismoari hezkuntzaren ikuspegitik heldu nahian ari da eta material bat argitaratu du...".

Gizarte eragile hauen eskaerei erantzuten hasita, "ahotsak irekitzeko, zabaltzeko, kolektibizatze" beharra sentitu dute eta *Ekofeminismoak konpos(t)*

*atzen* jardunaldia horretarako tresna izan da: "Denon artean pentsatzeko ekofeminismoa Euskal Herri nola eraiki nahi dugun, nola lurreratu dezakegun gabiltzan mugimendu eta espazio ezberdinetan". Martxoan Euskal Herri mailan egindako beste topaketa bat ere ekarri zuten gogora, Aramaioko talde feministak antolatua eta ekofeminismoari landa eremuko ikuspegi gehitu ziona: agroekofeminismoa izan zen bertan aztergai.

Ekofeminismoa Euskal Herrian bi-dea urratzen ari denez, aje hauek dituela azaldu zuten antolatzaileek: oraindik jende gutxi identifikatzen duela bere burua ekofeministatzat, euskarazko erreferente gutxi daudela eta inork ez duela bere burua ekofeminismoaz hitz egiteko aditu moduan edo legitimatuta ikusten. Esti Redondo aipatu zuten egunean zehar, praktikatik diskurtso teorikoa sortzen ari delako eta berriz ere Etxaldeko Emakumeak taldea, "kolektiboki diskurtsoa sortu daitekeelako, beti norbanakoen izenak erabili gabe". Zorionez, epe motzean berriz ere entzun eta irakurri ahal izango dugu eko-



feminismoaz euskaraz: uztailearen 19tik 23ra Izarran egingo den Iraultza Txikiak Akanpadan *Feministok lurraren defentsan* tailerrean batuko dira mugimendu ekologistako eta feministako kideak; eta liburu bat kolektiboan argitaratzeko asmoa iragarri zuten Begiristainek eta Barbak. Ekofeminismoari dagokionez, orain arte egindakoari begira jarri zituzten Isabel Hernández Castro, Maya K'iche' herriko kidea eta Euskal Herrian bizi den agronomoa; eta Marta Luxan, demografian aditua eta mugimendu feministako kidea. Praktikak eta pentsamenduak izan zituzten hizpide.

### IZAKI GUZTION ETXEA ETA ETXE BARRUKO BOTERE HARREMANAK

Hernándezek ekofeminismoa ulertzeko gako hauek eman zituen: "Ekologia hitzaren erroa jo behar dugu, bizitzeko leku edo etxe horretara. Baina zer etxez ari gara? Etxea ezin dugu espazio fisiko huts moduan ulertu, baita ere barruan sartu behar ditugu espazio horretan sortzen diren harremanak: bai izaki bizidunekin ditugunak (animaliekin, adibidez), baina baita 'bizigabe' izendatzen ditugun izakiekin ere (ibaiak...), hauek ere bizia sortzen digutelako, ekosisteman

bere funtzioa dutelako eta ezin garelako bizi haiek gabe. Eta feminismoaren egitekoa litzateke etxean dauden botere harremanak aztertzea".

### HEMENGO ZEIN BORROKA ETA PRAKTIKA IZAN DIRA EKOFEMINISTA?

Jardunaldi hauen asmoetako bat ekofeminismoak Euskal Herrian duen erroa edo genealogia osatzea zen, guztien artean. Luxanek hauek aipatu zituen: "Burura datorkidan lehen gauza dira Itoizen aurkako borrokan egin ziren sabotajeak: makinaren aurkako sabotajeak emakumeek egin zituzten jakinda poliziei ez zitzaizela burutik pasatuko emakumeek egin zitzaizketenik. Bestalde, burura datorkit Etxaldeko Emakumeak egiten ari den lana. Eta AHTren aurkako mugimendua ere bai: akanpada horiek guretzat nola bizi nahi genuen irudikatzen espazio bat ziren. Gauza batzuk ez ziren guk nahi genituen bezalakoak, botere harreman asko zeuden, antolakuntzari begiratzeko moduak... Joxeparen Sardea izeneko taldea sortu genuen, publikoki inoiz ezer egin ez zuena baina barrura begira ikuspegi feministatik proposamenak egin zituen, eta hainbat gai mahai

gainean jarri zituen. Genealogia egite-rakoan, aztertu beharko litzateke komite antinuklearretan ibilitako pertsonak zer egin zuten, burura baitatozkit gurasoekin joaten ginela Lemoizen kontrako ekimenetara eta hor izaten genituen elkarrizketak: iruditzen zait ekofeminismoarekin lotu zitekeen izpiren bat bazegoela hor".

Hernándezek beste hauek oroitarazi dizkigu: "Auzolanak egitea praktika ona da. Bere garaian emakumeen rola gehiago zen jaten ematea auzolanera etxera etortzen zirenei. Baina praktika gisa egiten jarraitzeko modukoa iruditzen zait, sukaldeko lanak eta rolak partekatuta. Ekofeminismoaz hitz egitean niretzat garrantzitsua da espiritualitatearen gaia. Ipar eta Hego globalaren artean sendatu gabeko zauri asko daude eta horiek sendatu gabe ezin dugu ekofeminismoaz hitz egiten jarraitu. Osatzea ez da bakarrik egin behar zapalkuntza barneratu duen biztanleriarekin, batez ere Abya Yalako [jatorrizko herriek Amerika izendatzeko modua] herriekin. Beste aldeak badu ardura historiko bat eta denen arteko harremanak eraiki behar ditugu, osatze hau egiteko, eta horrek denbora behar du, ez da egun bakarrean egiten. Espiri-



Isabel Hernández Castro eta Marta Luxan Serrano, goizeko solasaldian, genealogia ekofeminista osatzeko ariketan parte hartzen.

tualtasunaz hitz egiten denean, hemen folklorizatu egiten da: 'Nola jatorrizko herriek egiten duten, kopia egiten dugu eta ikastaro bat ordaintzen dugu haiena ikasteko'. Ez litzateke horrela egin behar, hemen badira hainbat praktika denboran galduz joan direnak. Zergatik ez baloratu Santa Ageda edo San Juan sua? Zergatik ez eman bere garaian izan zuten garrantzia?". Espiritualtasunaren gai horretan, hainbat korapilo geratu ziren agerian: euskaldunen iraganak Hego Globalarekiko sortzen duen kontzientzia karga, eta publikoko batek oroitarazi zuenez, kristautasunak eragiten duen atzerakoa. Baina publikoko kide horrek eskertu zion Hernándezi espiritualtasunaren gaia atzera izana: "Iraganarekiko aitortzan hutsune handia dugu".

### GAURKO ARAZOAK IRAKURTZEKO BETAURREKO

Hernándezek azaldu zuen migrazioaren gaian kateatuta daudela ingurumen gatazka eta feministak: lurraldea uztera behartua daude jende asko, bai baliabide naturalera sarbide mugatua dutelako edo enpresa transnasionalek bota egiten dituztelako beraien lurraldetik. "Indarrean den sistema horrek determinatzen du lurralde batean nortzuk biziraun dezaketen eta nortzuk ez. Praktika hori dutenen artean euskal enpresak ere badaude". Pertsona horiek migrazioa hartzen dute bide gisa eta Espainiako Estatuak hiru urtez modu irregularrean bizitzera behartzen ditu, Atzerritartasun Legearen bidez. Biziraun behar horretan, emakume migratuak etxe barruko zaintzaile gisa finkatzen dira eta jasaten duten esplotazioa itzela da: "24 ordu astean 6 egunetan. XXI. mendeko esklabotza da". Luxanek bat egin zuen: "Herrigintzaren helburuetako bat izan behar da Atzerritartasun Legearen kontra eta esklabotza berrien kontra borrokatzea, gure etxe barruetan gertatzen diren gauzei begiratuta eta gure familiakoekin eztabaiatuz".

Luxan gainpopulazioaz ere mintzatu zen: "Ingurumen arazo gisa aztertzerakoan, joera dago gainpopulazioaren zenbakiez hitz egiteko eta ez beste gai batzuei begiratzeko, adibidez, herrialde bakoitzean jaiotzen diren pertsonen zenbat kontsumitzen duten. Oso diskurtso dikotomikoa dago, badirudi leku batzuetan jendea sobera dagoela eta bestean falta dela. Hori bada arazoa konponbide erraza du, mugak zabaltzea. Uste dut

ekofeminismoak lagundu ahal digula gai hauei ikuspegi kritikoz begiratzen. Argi dago planeta honek ezin duela sostengatu batzuek daukagun bizimodua. Diskurtso eta praktika ekofeministak beharrezko dira daukagun egoerari aurre egiteko baina uztartuta, ez ekologismoa edo feminismoa bata bestea gabe".

## Guztien artean konposatu beharreko mugimendua

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**G**eroari begira jarri ziren bigarren solasaldian, Euskal Herri mailako mugimendu ekofeministaren osaketaren bidean urrats bat aitzina egiteko asmoz. Mugimendu gisa irudikatzen den heinean, komunitateko hainbat esparrutako jendea batu zuten ariketara. Bistan da, mugimendu ekologistatik eta feministatik begiratu zitzaion erronkari, baina ez bakarrik: hirigintzatik, landa eremutik, euskalgintzatik, zuzenbidetik, energiaren sektoretik eta kazetaritazatik ere egon zen jendea –ikuspegi antiespezista ere egotekoa zen, baina azkenean, Junkal Arruti Tenak ezin izan zuen bertaratu-. Hurrenez hurren, Sukar Horia taldeko Ainara Kaltzakorta Urresti, Bilgune feministako Osatze Feministako Maite Zabala IdiGORAS, Miren Vives Urbieta arkitektoa, Arantza Arrien Goitiandia, Lorea Agirre Dorronsoro, Amanda Dias Verrone, Estitxu Villamor Lomas eta kronika honen idazle Jenofa Berhokoirigoïn Hirigarai. Ere mu guzietan txertatu beharreko gogoeta eta praktika multzoa delako ekofeminismoa, eta horrela baizik irauliko lukeelako sistema, edo –"gauza eskandalagarri hori", Amaia Perez Orozco ekonomialari feministaren hitzak berriz hartuz-. Lehenik eta behin, gehiegitan bakoitza beretik eraman ohi diren ekologismoa eta feminismoa elkar elikatu eta osatu beharko lirarteke, bakoitzaren praktikei eta gogoetei bertzearen irakurketak txertatuta. Ideia horrekin zabaldu zuen gogoeta Kaltzakortak. Hausnarketa, galdera eta helmuga andana partekatu ziren guzien artean:

### KOLEKTIBOTIK

"Alternatiba pertsonalak ez dira sostenegarriak, taldeko alternatibak ditugu osatu behar", Arantza Arrienen hitzetan. Oinarri hori berme gisa harturik, lekuan leku diren hainbat borroka elkar lotu eta aliantzak sortzeko beharra azpimarratu zuen Lorea Agirrek, ikuspegi interseksionala osagai zentral gisa kokatuta. Hor euskarak lekua duela oroitarazi zuen, hizkuntza ez delako komunikatzeko tresna soila: "Botere harremanen agerpena probokatzeko duen tresna da, eta gainera, gizartea eraikitzeko baliabide ere bada, geure buruak egiteko tresna inportante bat".

### DEKOLONIALITATETIK

"Ekofeminismoaren ekarpen nagusietakoa da ikusaraztea gure eredu energetikoaren atzean dauden bizitzak", Estitxu Villamorren oharrari segi. Hau da, mendebaldetarrok bideraturikoak zer-nolako suntsiketa eragin dezakeen munduaren beste puntan –batez ere Hego Globalean-. Ikuspegi dekolonialetik begiratu behar diogu gure kontsumo ereduari: "Jarraitzen dugu berdin kontsumitzen eta kalteak esternalizatzen. Pribilegio bat da gurean jarraitzea bizitza eredu horrekin. Pribilegio bat da makroproiektuen aurka borrokatzea eta geldiarazten lortzea, beste lurralde batzuetan ezin dituzte geldiarazi". Deserosoa zaizkigun galderak luzatzeko espazio segurua jasorik, ondokoak zabaldu zituen: Nola egingen dugu kontsumoaren murriztearena? Zeinen ardura da? Herri mugimenduarena? Politikariena?

Zentzu beretik hitz egin zuen Jenofa Berhokoirigoïnek, eta argi utzi zuen gaur egungo instituzio politiko eta finantzarioek bideratu trantsizio ekologikoa "erabat koloniala" dela, eta desazkundera daukagula aterabidea: "Gure ardura da desazkunderaren proposamena lantzea eta zabaltzea, eta hori modu baikorrean eta beti ere plazerretik".

### LURRETIK

Lurraren aldeko borrokek eta lurrarekitalako loturek aipamen zabala izan zuten jardunaldietan, landa eremua mugimenduaren zentroan kokatuz. Nekazariak, abeltzainak eta basozainak izanen dituen landa eremua ezinbestekotzat jotzen da, eta nola ez, feminismitik ere aitzina egingen duen baserri eremua.

Lurraren kontrolaren eta ustiapenaren arazoari zuzenbidetik eta begirada ekofeministatik begiratzen dio Amanda





Euskal Herriko mugimendu ekofeministaz kolektiboki hausnartzeko une izan dira jardunaldiak.

UEU

Diasek: “Lurraren kontrola eta kontzentrazioa dira eredu heteropatriarkalaren, kapitalistaren, kolonialaren eta ekoizdaren oinarrian”, eta gizon zis-en esku geratzen da ondasuna. Hori horrela, heteroarauaren aurkako eta agrofeminismoaren aldeko borroken garaipenik ez du irudikatzen emakumeen eskuetatik at gelditzen direino lurak.

Lur honek barne biltzen duen aniztasuna kontuan hartzen duen mugimendua da ekofeminismoa: “Sostengarria izango da edo ez da izango; izango da pertsona, animalia, landare eta izaki orori bizitza duina bermatzen diona hil arte”, Arrienen hitzetan. Botere-harremnan guziak –antropozentrismoa barne– kontuan hartzen dituen ikuspegia delako ekofeminismoa.

### BIZI(TZA) ORO ERRESPEATUZ

Besteen bizia eta norberarena, nola ez. Ez pentsa gure bizitza eredu frenetikoan erraza denik bizitza guzietan eta biziari errespetua eta begirunea bideratzea. “Apaltasuna” eta “onarpena” galdatzen du, Maite Zabalaren hitzetan: “Bizitzak agintzen du, dena ezin dugu kontrolatu... Bai naturak bai gorputzak euren ibilbideak dituztela onartu beharrean gaude”. Jarrera aldaketa andana dakar horrek: gure gorputzari konektatzea –ez soilik

## “Ekofeminismoaren ekarpen nagusietakoa da ikusaraztea gure eredu energetikoaren atzean dauden bizitzak”

Estitxu Villamor

buruari, arrazoiari–; naturaren zein gorputzaren zikloei arreta jartzea; intimoa politizatzea; ohiturak eta erritualak berreskuratzea ala berriak asmatzea; plazerez hitz egitea...

Miren Vivesek ere jorratu zuen bizitzak zentroan jartzearen garrantzia. “Hurbiltasunaren kontzeptua berreskuratu behar dugu, eta hirigintzatik erran nahi luke auzoak eta herriak direla oinarritzko unitateak, eta ez hiriak”. Batez ere, “baliabide pertsonal garrantzitsua” den denbora lapurtzen digulako hiriak. Den-

boraz hitz egin zuen Kaltzakortak ere, eta zehaztu zuen ekofeminismoak ekarri dezakeela mugimendu ekologistak behar lukeen erritmo aldaketa: “Larrialdi klimatikoa dela-eta, askotan hitz egiten da arazoaren eta aldaketen berehalakotasunaz, baina etorkizun sostengarriak bestelako erritmoak eskatzen ditu”.

Hirigintzaren denbora-espazioa luzea dela ohartarazi zuen Vivesek: gaur egun gogoetaturiko eta marrazturiko hiriak hemendik 10-15-20 urtera gauzatuko da. Tamalez, hiriak ez dira ez ekologismotik ezta feminismotik ere irudikatzen. Ekofeminismotik irudimena martxan jarri eta nolako hiriak nahi ditugun imajinatzeke ariketari lotzeko gomita luzatzen du arkitektoak, bizitza gertatzea posible eginen lukeen biharko hiri osatzeko: “Nola nahi dugu bizi gure auzoan? Bizitza guziak dira ezberdinak, premia eta behar guzietan erantzuteko nolako espazioak sortu behar dira? Bizitza anitzak posible dira etxe eta kale guztiak berdinak direnean? Zergatik kale batean ongi gaude eta bestean ez? Jarri gara horri buruz pentsatzen?”.

Homogeneizazioaren kontrako bidean doan proposamena delako ekofeminismoarena. Monokultura beti delako gaitza, izan bioaniztasunarentzat ala kulturentzat. ●

# BASO JANGARRIA, GERATZEKO HELDU DEN EXTRALURTAR HORI



IÑIGO ARRUABARRENA



**G**ero eta gehiago entzuten ari dena, gutxi batzuk zer den erantzuten dakitena eta are gutxiago dira horrelako bat inoiz ikusi dutenak: baso jangarria. Baina lasai, organizazio ez sekretu honetatik kontaktu zuzena izan dugu berarekin eta hurrengo paragrafoetan kontzeptua laburbiltzen saiatuko gara.

Oinarritik hasiko gara, izenaren esanahi gordinetik. Bere izenak argi dioen bezala “baso” eta “jangarri” hitzak batzen dituen diseinu eta praktika metodo batez ari gara. “Basoa” hitza estrukturali dagokio, ekosistema honek duen funtzionatzeko erari, baso natural batean gertatzen diren loturak kopiaatzeko saiakerari hain zuzen ere.

Alde batetik, baso naturaletan gertatzen den bezala, diseinatutako baso hauetan aktibitate fungiko handia duen lur geruza sakona sortzea bilatzen da, materia organikoz betea eta estruktura zuzenekoa, lantzen ez dena, bertako biztanleak bakean uzten direna.

Beste aldetik, baso naturaletan dauden zazpi estratuak ongi lekutzea bilatzen da, haien artean sinergiak bilatu

eta ahalik eta uzta ezberdin eta ugarietak lortzeko asmoz. Lurrazpitik hasita zuhaitz altueneraino basoetan dauden zazpi estratuak hurrengo hauek dira: lurrazpiko erraboil eta sustrai lodiak, belar estratua, landare herrestariak, zuhaixkak, neurri txikiko zuhaitzak, neurri handiko zuhaitzak eta bukatzeko, eta hauen guztien artean nahasita, igokariak. Horiek guztiak ongi konbinatuz oparotasun liluragarria lortu daiteke, gizakiak eraldatutako ekosistema mota honetan.

Izenak dakarren bigarren terminoa “jangarria” hitza da. Esanahiari erreparatuz gero, sumatu dezakegu baso mota hauek diseinatzean jangarriak diren espezieak erabiltzen direla. Eta hala da, baso hauetatik jakiak barra-barra lortu genitzake (fruta, barazki, onddo, zainzuri...) baina horiez gain, giza beharrak asetzen dituzten beste elementu askoren iturri ere bada basoa: sendabelarrak, garbitzaileak eta kosmetikarentzako osagaiak, sutarako egurra, eraikuntza materialak eta loreak.

Ezin dugu ahaztu basoak banakakoen elkarkidetzari esker mantentzen direla

osasuntsu. Hori horrela bada, jangarriak diren espezieak sostengatzen dituzten beste espezie batzuk gehitu beharrean gaude gure diseinuan: leguminoso familiariko zuhaitz eta landareak (zirkuituan nitrogenoa txertatzen dutenak), zoldabelarrak haien sustrai luzeekin mineralak azaleratzeko, bertako zuhaixka espezieak biomasa ugaria sortzeko...

Landare erreinuaz gain beste elementu garrantzitsu batzuekin jokatzeko da baso jangarrietan, biodibertsitatea eta gozagarritasuna gehitzen dizkietenak: ur gorputzak, animaliak, lasaiguneak... hurrengo batean aztertuko ditugunak. Bitartean gaiaren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, hona hemen izenburu bi: Robert Crawforden *Creating a forest garden* eta Gisela Mir eta Mark Biffenen *Bosques y jardines de alimentos*. Ederrak biak!

Laburbiltzeko, baso jangarri bat gizakiak eraldatutako ekosistema bat da, bizitza eta natura lehenesten dituen, hamaika forma hartu ditzakeena eta denontzako onura bilatzen duena, paradisu bat nire ustetan. Eta zuk ere sortu zenezake zer edo zer... basoan murgiltzea besterik ez duzu. ●



# EUSKARARENTZAT GU SENDABELAR



**GARBIÑE LARREA**  
@GAR2LARREA

**A**rtikulu hau ez idaztekotan nintzen, nahiz duela hilabete batzuk Estitxu Eizagirrek esan idatzi beharra neukala. Bera izan dut editore eta sudur fineko kazetari ere badenez, ondo antzeman zion gaiari: euskaraz aritzeak dakarren zama eta estresaz idatzi beharra daukat. Izpilikuari eskaini behar nizkion ondo bidean lerro hauek baina hurrengo artikuluan beharko du izan, Auzitegi Konstituzionalaren erabaki batek gainezka eginarazi baitio basoari.

Euskara hutsean jardun ahal izatea ezeztatu du auzitegiak eta hautu hori egin dugunon erabakia ere jomugan dagoela sentitzen dut. Izpiliku infusioa prestatu ondoren, barruko erretasuna baretzeko zenbait kontu kontatu beharra daukat. Izan ere, sendabelarrik onena barruko mina eta ezina adieraztea denean, ez hasi bestelako erremedioen bila: sendabelarrei ez eskatu norberak egin beharrekoa egiterik.

Oldarraldi judizialaren sokak korapilo asko dauzka, egunerokoan bizi ditugun korapiloak, urdailean edo ez-tarrian geratzen zaizkigunak. 2021ean *Sendabelarrek dakitena* argitaratutakoan astero erantzun behar izaten nion sare sozialetan "*¿Y en castellano para cuándo?*" galderari. Berriki ere gertatu zait Instagramen "*todo esto que haces ¿Por qué no en erderaz también?*" galderari erantzun beharra. Dagoeneko ez dut hautua arrazoitzen, euskara ikastera gonbidatzen ditut. Txarrerako hartu ohi didate ordea eta pribatutik epelak bota, nire lengoaiatxo horrekin ez naitzela urrutira iritsiko adibidez. *Hater*-ak egiten, zeinek esan...

Hitzaldi eta ikastaroetan ere ari zait gertatzen. Gazteleraz ere aritu beharko



DANI BLANCO

dudala entzutea tokatu zait edo ikastaroaren laburpena gazteleraz egingo al diodan eskatu, ah, eta apunteak elebitan jartzeko, denok ulertzeko.

Nire liburuak neuk itzul ditzakedala ere iradoki didate behin baino gehiagotan. Alaine Agirrerekin iazko irailean Twitterren aritu nintzen honetaz, komentario horrek eragiten digun azkura eta haserreaz. Gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez idazten duen idazle bati ez liokete inoiz galdera hori egingo. Balio handirik gabeko hizkuntza batean ari garela sentiarazten digute behin eta berriro eta itzulpena, noski, hizkuntza menderatzailerara egin behar genukeela. Itzultzearen kontra ez nago, esan gabe doa, kontua da hemen arrakastaren neurria gaztelerara itzuli izanak adierazten duela, antza.

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartean eta Natul Azpeitiko euskara taldean militantzian eta Euskalgintzaren Kontseiluan lanean aritu ondoren ideiak garbi samar dauzkat. Gaur egun ez ditut gauzak euskararen alde egiten, euskaraz baizik eta horretxek sortzen die askori ulertu ezina. Euskaldun bat baino gehiagok ere esan izan baitit gazteleraz arituta jende gehiagorengana iritsiko nintzatekeela eta hala diru gehiago irabazi (SIC).

3.500 aleko bigarren edizioa salduz doalarik eta aurtengo lehen sei hilabeteetan 24 hitzaldi zein tailer eman ondoren, hemen euskaraz bagarela erakustek niretzat ez du preziorik. Hori jakinda poz hartzen duzenon pozak ematen dit niri poz eta hori dut ene aberastasun preziatuena. Eta kitto! ●

# KIROL ALDAGELEN USAINA BELAZEAN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**A**spirinarik hartu al duzu aspaldi? Mende bete luzez munduan gehien ezagutu eta erabili izan den botika da. Azido azetilsalizilikoak du osagaia, 1853an aurkitua, 1838an topatutako azido salizilikotik datorrena. Landare baten errotik erauzitako azidoa izan zen botika sonatuaren jatorria. Saha-tsak eta zumeak (*Salix spp*) saliziliko horretan aberatsak dira, hortik azidoaren izena; baina aspirinaren izenak beste jatorri bat du, beste landare bat.

Burdilinda du izena (*Filipendula vulgaris*). Azido salizilikoaren iturri izan ziren erro haiek bereak ziren, hariz josita edo hariztatutako burutxo edo tuberkulu itxurako sustraiak. Hortik burdilinda, hari batetik zintzilik, edo gauza bera dena *Filipendula*, latinezko *filum* "haria" eta *pendulum* "zintzilik" hitzetatik dator, sustrai mehez loturiko tuberkulu zintzilika-rioak baitira. Hasiera batean *Filipendula* generoan beharrean *Spiraea* generoan sailkatua zegoen eta hortik aspirina. Do-



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

"Soro-erregina" edo "nasailorea".

menique Fremyren *Quid* entziklopedia sonatuaren 1991ko argitalpenak honela dio: Aspirinaren izen zientifikoa, Bayer-ek 1899an erregistratu zuen marka, hitza dator "A" aurrizkitik (Azetilaren azetilazioa adierazten du) eta "spir" *Spirsäure* (alemanez "espirea azidoa") eta "ine" (kimika industrialaren atzizki klasikoa) laburduretatik.

*Filipendula* generoko bi espezie ditugu Euskal Herrian: aipatutako burdilinda, "semelore" eta "semelili" ere deitua, eta "nasailorea" edo "soro-erregina" edo "haranetako erregina" esaten zaion *Filipendula ulmaria*. Azken horri *ulmaria* izena bere hostoek zumarrenekin (*Ulmus spp.*) duten antzatik dator. Semeloreak lur lehorrak atsegin ditu, batez ere Euskal Herriko hegoaldean bizi da, nahiz eta Itziar, Galdames edota Balmasedan topa daitekeen; nasailorea, ordea, lurralde osoan bizi da, lur oso hezeetan: haltzadi (*Alnus glutinosa*), ur erretan, urasetutako belaze, mendiko megaforbio...

Soro-erregina edo haranetako erregina esaten zaio belaze hezeetan nagusitzeko joera duelako, batez ere azienda maiz larretzen ez edo segatzen ez direnetan. Belardia abandonatzen bada azkar nagusitzen da eta bertako flora txirotzen du. Sustraije sendoa du, aipatutako tuberkulu kateak, eta erraz zabalitzen da. Era berean, sustraietan duen aspirina sortzeko gai horrek eragin fitotoxikoa du, eta kalte egiten die inguruan dituen beste landareei, haien garapena eragozten baitu. Sustrai hori zanpatuz gero adituko duzun "kirol aldagelaren usaina" esaten zaiona osagai horiei zor zaie, gero kirolariak kolpe eta ubeldurak sendatzeko erabiliko dituzten ukenduen osagai direnei. Baionan argitaratzen zen *Egunaria*-ren 1971/08/02ko alean honela dio: "Errumatismen sendagailu ona da nasailorea, izertarazten baitu eta ixurazten 50 grama pinta bat ur irakituan". Izertarazten eta ixurazten; kirolariak... ●



## DARDARE

# PRODUKTU ENERGETIKOAK, EKOLOGIKOAK ETA BERTAN EGINAK



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**K**irrol ekimen asko egiten dira Euskal Herrian urte osoan, eta horrelakoetan kirolariek hartu ohi dituzten produktu energetikoei jarri zuen begia 2019an Xavier Bourlon ziburuarrak: “Emaztea erlezaina da aspalditik, eta berarekin hasi nintzen lanean”. Naturan kirola egiteko ohitura zuen jendeari bideratutako produktuak egiten hasia bururatu zitzaion, etxeko ezta oinarri izanen zutenak. Tartean pandemiak harrapatuta, onartu du nahi baino mantsago doala proiektua aurrera, baina dagoeneko ari da zenbait produktu ekoizten eta saltzen.

## GEL-AK ETA BARRA ENERGETIKOAK

“Euskal Herrian eta hurbilean kirola egiten duen jendeari bertako laborariek egindako produktuak eskaintzea zen ideia, errezeta simple batekin, kimikorik eta enbalatzerik gabe”, azaldu du Bourlonek. Momentuz, haiek ekoiztutako ezta oinarri duten barra energetikoak eta gel-ak ekoizten dituzte. Barrak egiteko almendrak, intxaurrak, oloa, zekalea,



abrikotak eta aranak darabiltza, eztaiz gain. Gel-en kasuan, berriz, bi motakoak egiten ditu: eztiarekin eta limoiarekin egindakoa bata; eta eztiarekin, limoiarekin eta jengibrearekin egindakoa bestea.

Dardareko produktuen osagai guztiak ekologikoak dira, eta saiatzen dira horiek hurbiletik ekartzen. Oloa Landetako enpresa bati hartzen diote, eta abrikotak eta aranak, Frantziako Estatuko hego-mendebaldetik dakartzate. Eraldaketa, berriz, Senpereko Hurbil gunean egiten du Bourlonek berak. “Zortzi ekoizleren artean martxan jarri genuen gunea da Hurbil, bertan eraldatzen ditu-

gu gure produktuak, eta salmenta gunea ere badago”, azaldu du.

## KIROLARIEN ARTEAN KONFIANTZA IRABAZTEKO ZAILTASUNAK

Senpereko gunean eta hurbileko kontsumitzaileen elkarte eta dendetan saltzen ditu produktuak batik bat Bourlonek. Espero zuenaren kontra, ordea, kirolariren artean tokia egitea ez da hain erraza izaten ari: “Pentsatzen nuen hurbileko eta kalitatezko produktuok segituan piztuko zutela kirolariren interesa, baina errealitatea da haiek marka konkretuak erabiltzen dituztela gehienetan, eta ohitura horiek aldatzeko beldur direla”. Produktua ezagutzera emateko esfortzu handia egin behar dela dio ekoizleak, eta momentuz, kirol munduko jendeari probatzeko barrak ematen ari da.

“Lehiaketan munduan ari diren horien-gana ez gara gehiegi iritsi oraindik, modu lasaiagoan kirola egiten dutenak, naturan ibilbideak egitera ateratzen direnak eta horrelakoak dira barrak erosten dituztenak, batez ere”, dio. Horiekin batera, gurasoak ere ohiko bezero omen ditu ziburuarrak, haurren hamaietakorako erabiltzen baituzte produktuok. Proposamen berritzailea eta desberdina da Dardare, betiko formula-ri buelta bat eman baina betiko eta kalitatezko produktuak oinarri dituen. ●

HEMEN DAGO  
NAFARROA

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com **REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA**

# STAND-UPAREN OLATUA: APURRETIK APARRERA

Maite dugu maite talaiara igo, urrunetik datozen olatuei so egin eta horien etorrera lau haizetara zabaltzea: “Begira, euskal telesailen olatua!”, “Han, haitz horien atzetik, olatu euskaltzale berria!” edo “Eta hori? Ez al da hori euskara salbatzera datorren azken euskal *trap* tsunamia?”. Gure mundua irauliko duen olatuaren zain bizi gara euskaldun asko. Bada, iragarpen ikaragarri bat dugu gutxi horientzat: hemen da euskarazko *stand up*aren olatua! Edo olatuñoa, sikiera.

 LANDER ARRETXEKA BEREZIARTUA / ASIER KORTABARRIA IPARRAGIRRE

**U**morezko monologo edo bakarrizketa deitu izan zaie bazterrotan. *Stand-up comedy* gisa ezagutzen da anglosferan. Gaitz gehientsuenen gisa, horrek ere Ameriketako Estatu Batuetan du jatorria. Erdaretara indarrez iritsi zen milurteko berriarekin batera, besteak beste, *Paramount Comedy* eta *El Club de la Comedia* gisakoen eskutik, eta horrek izan zuen oihartzunik Euskal Herrian ere. Baina salbuespenak salbuespen, euskarazko *stand-up* bazterreko fenomeno gisa garatu da urte luzez. Oraintsu arte.

2010. hamarkadatik aurrera, *stand-up*aren kulturak loraldi berria izan du. Sareek zein *streaming* plataformek AEB eta Ingalaterrako umoregileak haien

mugetatik kanpo ezagutarazi dituzte, eta umorea egiteko kode, molde eta ikuspuntu berriak hedatu dira mundu zabalean barrena, baita euskal oholztataraino heldu ere. Badirudi ari dela eszena bat sortzen euskara, *stand-up*a, umoregileak eta publikoa ezkontzen dituen. Baina zein da honek izan dezakeen garapena? Aterako al da hemendik taxuzko zerbait? Axola al du? Galderak erantzuteko argitasunik ez denean egin ohi denez, saia gaitezen erantzunak ondoko mahaikoaren azterketan aurkitzen. Begira dezagun Kataluniara.

## SALBUESPENA ZENA, JOERA

Katalunia diogunean, Bartzelonaz ari gara (nagusiki). Izan ere, *stand-up* askorik ez zegoen tokian umore eszena

bizi eta oparoa dago orain. Eszena horretako kide da Eñaut Zuazo umoregile gasteiztarra. Euskal Herrian bakarrizketak egiteko aukerarik ez, eta Katalunian aurkitu zuen lehen aldiz eszenatoki batera igotzeko ingurune egokia.

Ingurune horiek lan txiki askoren garapenaren emaitza dira: “Duela zazpi urte ez zegoen ia bakarrizketarik, are gutxiago katalanez. Orain, ehun umoregile baino gehiago gara”. Gidoigintzan zein komedia profesionalean, Madril da estatu mailako epizentroa. Agian hori izan da Bartzelonan eszena alternatiboa sortzearen arrazoia: “Lanik ez egoteak, elkarren artean kompetentzia askorik ez egoteak, familia handi bat sortu du. Batak besterengandik ikasten du, eta elkarrekin ari gara bidea egiten”.



Ekainaren 1ean eta 29an, Donostiako Dokan egindako Karkarkar saioretako argazkiak. Jon Plazaola, Ane Lindane, Julen Portillo eta Antton Telleria.

HIRU DAMATXO





'Soterrani stand up' ikuskizuna Bartzelonan.  
EÑAUT ZUAZO



Baina zein da familia horren ama hizkuntza? "Bartzelonako eszenan katalana salbuespeneko" zela dio Oye Sherman umoregileak, orain urte batzuetako giroa oroitzean. Gutxi batzuk salbuespena zen hori joera bilakatzeko determinazioarekin batu ziren arte. *Soterrani stand-up* ikuskizuna sortu zuen 2017an beste kide batzuekin, baita *L'Altre Mic* katalanezko *open mica* ere.

### OPENAK IREKITZEN DU BIDEA

*Open mic* diogu anglosaxoiek termino hori zabaldu dutelako. Baina tira, umorezko mikrofono irekiak dira: jende berria lehen aldiz taulara igotzeko eta esperientziadunek testu berriak lehen aldiz jendaurretzeko espazioak. Bartzelonan, katalanez ari diren umoregile asko eta asko *L'Altre Mic*-eko astearretan trebatu dira. Horrelako batean igo zen lehen aldiz taula gainera Eñaut Zuazo ere. Haren kasuan, *La Llama* liburudendan antolatutakoan izan zen. Bartzelonako umorearen erreferentziatzko beste elkargune bat da: liburuak, formakuntza eta ikuskizunak biltzen dituen. Dena umoretik edo umorerako.

Ignasi Taltavull da *La Llanan* barrena aurki dezakezun horietako bat. *La Ruina* podcastaren egile gisa egin da ezagun, baina besteak beste, Modgiren *Mític* komedia espezialaren zuzendari ere bada. Katalanez grabatu den lehena da. *Openen* garrantzia azpimarratzen du Taltavullek. "Modgik bere espezialean grabatu zuen material guztia pasa da *open mic*etatik, findu arte. Tresna ezinbestekoa dira testuak eta komikoaren nortasuna lantzeko". Tresna, baita topaleku ere, Oye Shermanen arabera. "Elkargune funtzioa dute, eta kideekin

konplizitatea garatu ahala, proiektu profesionalak ere sor daitezke bertan".

Umorezko eszena landarea bada, *openak* sustraiak dira. Baina landare horrek loreak eta fruituak ere eman ditu Katalunian. Oraindik gaztelerazkoaren itzalean bada ere, geroz eta gehiago dira katalanezko umorezko proposamenak, izan podcastak, irratsaioak, ikuskizunak edo jaialdiak. Eta horrek, lehenago gaztelaniaz egingo zutenen ohiturak aldatzea ere ekarri du: besteak beste, Andres Fajngold umoregile argentinarra eta Eñaut Zuazo bera katalanez egitera ausartu izan dira.

### HAU EZ DA BERRIA

Mediterraneo itsasoa ederra da, baina tokian tokiko erretrako ur freskoa txarra al da ba? Euskaraz egindako *stand-up* gisakoen bila, 2000. urteraino egin behar da atzera. *El Club de la Comedia*

eta *Paramount Comedy* erreferentzia espainiarren eraginpean, gaztetzeta-ko oholtzak musikari eta bertsolariekin konpartitzeko aitzakia perfektua aurkitu zuen zenbaitek. Haietako bat da Jon Plazaola umoregile eta aktorea. "*Stand-up* berria zen denontzat, eta ni neuk asmatutako lege batzuei jarraiki, nire estilo propioa sortzen ahalegindu nintzen, euskaraz". Oso gutxi zirenez, arrakasta handia izan zuela gogoratzen du. 23 urte igaro dira hasiera hartatik, eta oraintsu itzuli da stand-upera *Tu Tum, Platz!* emanaldiarekin.

Antton Telleriaren *Nekatutak* tour arrakastatsuak eraman du euskarazko *stand-upa* orain arteko zapaldu gabeko lurretara. Hainbesteko ote da? Bai eta ez. Beste umoregile batzuek ere, foku gutxiagoren argipean, Euskal Herri osoko aretoak eta frontoiak jarri dituzte barrez. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak osatzen duten bikoteak, besteak beste. *Bakean dagoena*, *bakean utzi* emankizuna sortu zuten 2017an, eta ia 150 aldiz eraman zuten oholtzara. *Luze edo motz* emanaldiarekin beste horrenbeste herri bisitatu dituzte. *Herri Txiki Infernu Handi*arekin lehiatzeko moduan daude. *Stand-up*aren klabeetatik gertu badaude ere, biko formatua da haiena. Hori da, Torregarairen hitzetan, arrakastaren formula: "Umore oso antzekoa erabiltzen dugu, eta elkar babestu eta gozatu egiten dugu". Bide zabaltzaile izan dira, umore moldeaz gain, gutxi entzuten diren edukiak eramaten baitituzte doazen lekura: "Batzuentzat deserosoa da bi emakume sexuaz eta aho bizarrik gabe hitz egiten entzutea".





Antton Telleria *stand-up* saioan.



## BIZITZAZ UMORETIK HAUSNARTZEKO

Orain bai: Antton Telleria eta *Nekatu-tak*. Lehenago ere izan dira *stand-up show*ak euskaraz, baina tolosarrarena da nazioarteko *show* garaikideekin parekatu daitekeen lehena. Bai behintzat konparaziotik autoestimua zaurituta atera gabe. Donostiako Antzoki Zaharrean egin zuen saio bikoitzaren mila sarrerak astebetean saldu ziren. Aitor-tzen du irratian eta telebistan lan egiteak ikusgarritasuna eman diola, baina urteak zeramatzan, ezkutuan, ikasi eta prestatzen: “Nik oso serio hartu dut apustu hau, gogo handiz eta lan handia eginda. Uste dut jendeak hori apreziatu duela”. *Show*-aren azken emanaldiak grabatu egin ditu, eta laster du zabaltzeko asmoa, komedia espezial gisa.

Espainiatik datozen monologo klasikoen erreferentzietatik urruntzeko ahalegin kontzientea egin du Telleriak, topikoen bueltan osatutakoak direlakoan. “Behin *stand-up*aren bueltan murgiltzean topatu nuen hor badagoela sekulako unibertsoa, umoretik bada ere bizitzaz hausnartzeko eta gure errealtateari erreparatzeko balio duena”. Joko horretan sartzeko, ordea, ikusleak ere ahalegina egin behar du. Musikarekin egin du konparazioa: pop *estribillo*ak ederrak dira, baina badaude gauza gehiago gozagarriak direnak arreta eskainiz gero.

Herriz herri eraman du *show*-a, baina horrez gain, Telleriak maiz hartzen du parte jai-gune edo gaztetxeetan gero eta gehiago antolatzen diren emanaldi kolektiboetan. Oholtza, garagardoa eta kezka partekatzen ditu bertan azken urteotan *stand-up*ari gogor heldu dioten beste umoregile batzuekin: Maria Blanco, Julen Portillo, Ana Goitia, Iker Plazaola... Testu laburrak egiteko aukera eskaintzen dute saio horiek, baina pixkanaka, saioz saio, umoregileen arteko harreman sarea ere ari da sortzen.

## DESPOTORROPEN ETA KARKARKAR

Lehenago ere aipatu ditugu *open mic* edo mikrofono irekiak. Bada, euskal hiriburu batzuetan ere badira hilabeteroko maiztasuna duten batzuk. *Ekekei Comedy* Gasteizen, *DespotorrOpen* Bilbon eta *Karkarkar* Donostian, besteak beste. Ane Lindane umoregileak sortu zuen *DespotorrOpen*, Raquel Torresekkin batera. Kezka eta arazo bera zuten biek, egon behar zutela besteek eskaintzen zizkieten bakarriketa saioen zain.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

BATIX EZEIZA

“Normalean giro hori maskulinoa eta kasposoa da, deserosoa. Horregatik erabaki genuen guk geurea egitea. *Open* bat, feminista, gure erara egindakoa”. Bilbon antolatu den lehenengo *open-mica* da, eta Euskal Herriko bakarra emakumeak eta genero disidenten lehenesten dituen.

Horri eskerrak lortu dute “beste modu batera ausartuko ez liratekeen” emakume asko lehen aldiz oholtzara igotzea. *Open-mic*ak ezinbestekoak dira uste du: “Ez baduzu inguru informagorik, non lortuko duzu *show* bat egiteko segurtasun hori? Nola jakingo duzu zati batek grazia duen edo ez?”. Orain artean, *Despotorr* *Openen* parte hartu duten umoregile gehienek gaztelaniaz egin dute. Baina Lindanek euskaraz egiten du hasierako aurkezpena, eta ahalegintzen dira, aldiro-aldiro, euskaraz egingo duen norbait gonbidatzen.

*Open mic* denen artean, euskara hutsezkoa den bakarra *Karkarkar* da, berriki Donostian abiatu dena. *Stand-up* probalekua abizena darma, eta lehen bi saioetan oso ibilbide desberdineko umoregileak batu dira bertan, esperientziadunak zein hasiberriak. Eñaut Zuazo eta Beñat Iturbek, adibidez, lehen aldiz egin dute bertan *stand-upa* euskaraz. Maialen Sorzabalbere umoregileak ibilbide oparoa du *Barrexerka* taldean, baina *Karkarkar* izan du oholtzako bakarriketan estreinatzeko aitzakia. “Ez balitz halako formatuak aurkitu ditudalako, ez nukeen pauso hori nik bakarrik emango”. Egitea bezainbeste gustatzen zaio ikustea, eta hartzaile gisa oso aukera ona dela uste du. Ez da, itxuraz, hori uste duen bakarra. *Despotorr* *Open* zein *Karkarkar*-en emanaldi guztietan elkartu dira, guxtienez, ehun bat lagun.

Hori da *stand-uparen olatuñoa* deitu diogunari indarra ematen diena. Taula gainean dauden surflari izarrak bakarrik ez, badirela antolatzaile rola hartu dutenak ere; eta garrantzitsuagoa dena, ikusle xumeak gehiagoren gosez daude. Eta orain zer? Hondartzara iritsi aurretik lehertuko da olatua apar eta txalo artean gero ahanzturan galtzeko? Edo lurreraino iritsi eta astinduko ditu telebistaren, euskalduntasunaren eta kultur programazioaren zutabeak? Auskalo. *ChatGPT*ri edo konfiantzazko tarotistari galdetu. ●



## PANTAILARATZEKO LANAK

**B**i norabidetako hartu-emana dute *stand-up*ak eta telebistak. Badira pantailan hasi eta oholtzara gero salto egin duten umoregileak. Eta kontrara, zuzeneko umorea egiten dutenen artean, asko aritzen dira telebistan, kamera aurrean ez bada, paper artean, gidoilari. *Stand-upa* pantailaratzeko ahaleginak ere egiten dira, eta ez da, horien bila, Netflixera jo beharrik. *Barre Libre*a saioak umorezko bakarriketa laburrak eraman zituen ETB1era, 2021eko ekainera arte. Jon Plazaola aritu zen bertan, aurkezle eta gidoilari. Pozik dago saioan izandako jendea bakarriketarako egiten ikusten duelako orain. “Batzuk aritzen ziren gure programatik pasa aurretik eta beste batzuei agian saioak berak behar zuten laguntza edo bultzada txikia eman die”.

Baina, ai: *stand-uparen* moldeak telebistara eramatea bizikleta batekin surf egiten ahalegintzea bezala da. Zer esanik ez telebista publikoa bada. Antton Telleriak bi disziplinen gazi-gozoak dastatu ditu. Dioenez, *stand-up*ak ez ditu telebista publikoak dituen baldintza eta gorabeherak, eta zuzeneko intimitasunak aukera ematen du mugak gehixeago esploratzeko. “Telebistan oso molde atsegineko umorea egin izan da, molestatuko ez duena, ez duena zalapartarik sortuko”. Iritzi bertsukoa da Maialen Sorzabalbere, ETB1eko hainbat saiotako gidoilaria izan dena. Telebistan auto-zentsurarako joera gehiago dagoela dio.

Eñaut Zuazok ere frustrazioz biz du umorea telebistan egiteko aukera eskasia: “Gustatuko litzaidake etorkizunean bakarriketarako edo ikus-entzuzeko edukia egin nahi dituen euskaldun batek kanpora joan beharrik ez izatea”. Baina Kataluniara begiratuta ere usaintzen da gatazka horren berri. TV3ek Zona Franca *late night*a aurkeztu zuen iaz, *stand-up*etik datorren lantaldearekin. Manel Vidal umoregilearen txiste batek Parlamenteko zenbait alderdiren haserrea eragin zuen, ordea. TV3eko zuzendaritzak Vidal kaleratzea erabaki zuen. Elkartasunez Joel Díaz aurkezleak eta gidoilari batzuek saioa utzi zuten.



## JOLAS BERRIA



## Bota kartak eta otuko zaizu zerbait!

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**H**orrela amaitzen da ARGIAk sortu berri duen OTU karta-jokoko azalpena; baina jolasaren hasiera ere izan liteke, dibertsioa hasteko sarrera. Modalitate asko egon litezke, irekia da jolasteko modua, baldintza bakarra irudimena izango da. Aurrean dituzun karteekin, bakarka edo taldean, ze istorio sortzeko gai izango gara?

Ez daukat jolas honen sorrera azaltzeko pasadizo epikoegirik egia esan, irakurle. Ez dago ideia honetara heltzeko aurretiazko izugarritzko pausorik. Azoka taldearen bilera batean otu zitzaizen –barkatu txiste erraza–, aspaldian kontzeptua bera pixka bat modatik pasata ez ote dagoen pentsatzen hasia naizen brainstorming antzeko batean-edo. Otu eta egin –otu eta egin horren atzean dagoen prozesu guztiaren elipsia eginda, noski; alegia proiektua garatu, zehaztu, bideragarritasuna aztertu, diseinua egin...–.

Metalezko kutxatxoan 70 karta, irudi banarekin. Horixe da ARGIAk sortu due-

na. Horixe, irudimenari sormenerako aukera emanez gero, mundu zabala irekiko digun materiala. Ez gehiago. Banaka jolas gintezke, egoki iruditzen zaizkigun karta kopurua hartu, buruz gora jarri eta tokatutako marrazkiak oinarri hartuta ipuin edo istorio bat sortu. Familian edo lagunartean aritzeko ere mahai-joko polita da eta hemen ere aukerak asko. Txandaka denon artean osatu daiteke pasadizoa: adibidez, bakoitzak karta bat hartu eta karta horrekin aurrekoaren istorioari segida eman dakiok, edo aurrez bakoitzari karta kopuru jakin bat banatu eta norberaren txanda denean eskuan dituen irudien artean egokiena aukeratu daiteke, istorioa harilkatuz. Irudi berak baliatuta, bakoitzak istorio ezberdinak kontatzea izan daiteke erronka, txandaka; edo pertsona berak karta berdinekin bi kontaktuzun desberdin egitea.

Asmatze ariketa horri begiratzen badiogu, txikiak ere –gaitasunaren araberak laguntzarekin edo laguntzarik gabe–

## Ongi etorri Komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Etxean oso gustura irakurtzen dugun komunikabidea da. Bat egiten du gure bizitza ulertzeko baloreekin eta informazioa emateko duzuen ikuspegia oso profesionala iruditzen zaigu. Gainera, baliabide interesgarri pila bat sortzen duzue, eta ekarpen handia egiten diote arloz arlo Euskal Herriari.”

**Oriotik Ainarak**

“Aspaldidanik errespetua diodalako proiektuari eta euskarazko produktuak bultzatzeagatik.”

**Ordiziatik Ikerrek**

“Euskal kazetaritza independenteari bultzada ematearren.”

**Zarautzik Igorrek**

izan daitezke istorio sortzaile. Edo egin dezakegu beste ariketa polit bat: haurra entzule paperean jarri eta zaharragoek asmatutako ipuina berari kontatzea.

Burua eta mihia astintzea da helburua, irudimenaren, sorkuntzaren, hizkuntzaren eta ahozkotasunaren bidez disfrutatzeko eta gozatzeko jolasa baita. Ez dago erantzun egokien fitxarik, ez dago erantzun benetako eta bakarrik. Erantzun guztiak balio dezakete sormen pixka bat erabiliz gero.

Udako oporretan probatzeko aukera ederra duzue –ARGIAren webguneko Azokan dago jadanik eskuragai–. Utzi eskuartean duzuen eta elkarren ondoan egotetik elkarrekin egotera pasa. Atera une batez barruan duzun ipuin-kontalaria. ●



LIBURUA

# Harri baino haragi



OIHANDEBEREUS

## HARAGIZKO ERREFORMAK

### MARI LUZ ESTEBAN

PAMIELA, 2023

**MADDI GALDOS ARETA**

**B**izitakoak egiten gaitu, inguratzuten gaituen orok modelatu, elkarrekintzak ondu: ezin uka historia eta istorioak marrazuzenez bereizezin direnik. Mari Luz Estebanek (Pedrosa de Valdeporres, Gaztela eta Leon, 1959) berriki plazaratutakoa horren adierazle da: *Haragizko erreformak* (Pamiela, 2023) izendatu du Estebanek kritikariok herriar-izen bidezko deiturak saihestera ere bagaramatzen bere hirugarren poema-bilduma, politikoa denaz (eta, horrenbestez, baita politiko ere baden pertsonalaz) hausnartzera gonbita egiten duena.

Aditz-joko oro genuke beharrezko bederatzita ataletan bildutako 60 olerkiok ohiko hizketara itzultzeko. Izan ere, nitasunari eta gutasunari loturikoak harilkatzen ditu liburuak, tartean, iraganeko haurtzarotik hasi eta zehaz-

teke den etorkizuneko gutasunerako erabakigarri den orainetik. Bada, nolabait, poemok “nintzen” eta “gaitezen” aditzen artean kokatzen direla esan genezake, hertsiki denborari dagokionean baino maila politikoagoan, ordea: “Iraganari aurrez aurre / begiratzeko unea heldu da / memoriarik ilunena ere etorkizunean / jartzekoa”.

Gauzak horrela, bada mamirik le-rootan. Erromantizaziotik urrun, zorrotz begiratan die ahots poetikoak Euskal Herria azken hamarkadetan zeharkatu duten fenomenoei, eta, are gehiago, baita fenomenook gure izate eta gorputzetan utzi dituzten hondarrei ere: “Herriak desindustrializatu zaizkigu, eraikitzaileen onuran / gure ondarea eraitsiz doa, ezabatuz gure memoria / baina geu gara / gure nortasun industrialaren hondakinekin / zer egin jakin barik gaudenak”. Ildo horre-

tan, gero eta entzutetsu eta ohikoago diren auziak dakartza bildumak, oro har, noizbait gailendu zen balizko euskal identitateari arrakalak bilatzen dizkietenak. Horien artean da feminismoa eta zaurgarritasuna hizpide dituen *Nork esango zigun guri* poema, baita liburuaren muin den teoria maketoea ere: “Esango dut / euskaldun / medeatu / zaharberritu / erreformatu bat / irudikatzea / komeni zaigula”.

Gailentzen den kutsu narratiboak eta hausnarraren izaera esplizituak olerki batzuen poetikotasuna ahuldu badezakete ere, baliatutako irudi poetikoez gorputzari aitortutako garrantziak bat egiten du bildumaren norabidearekin, hots, harria baino moldakorragoa den hezur-haragizko herrian bizi garenen aldarriarekin. Aditz-joko oro baliatutaren, beraz, argi da poemok etorkizuna dutela jomuga. ●





MUSIKA

# Euria Bilbo postindustrialean



## BILBO ETA EURIA SEI SEGA

AUTOEKOIZPENA, 2023

XALBA RAMIREZ

**E**kialdea dela, Mendebaldea dela, baten bati ez zaio gustatzen Euskal Herriko banaketa kultural hau. Kontsentsuen faltan, badugu egia bat berdaderoa: kultura –eta musika– lurraldeari lotzen zaio, edo ez da. Nafarroa Garaiak eta Behereak eman dizkigute euskal zera hau birpentsatzeko eredu nagusiak azken hiru urteotan. Ordea, gainontzeko latitudeak ez dira, ez, geldirik egon, eta lerro hauetan sarri ekarri dugun eran, Bizkaiak badu bere ekarpena, ukabilkada forman.

Tradiziotik dator iraultza, beti ez bada ia beti. Aurreko belaunaldietako erraldioen sorbalda gainean pausatuta urrutiago ikusten delako –Newtonek esana, uste dut–. Bada, Bizkaiaren tradi-

zioak punk forma du, eta belaunaldi berri batek hartua du lekukoa.

Territorializatu da olatua, eta forma hartu du: Soinu Basatiak. Badakigu eta, egiturarik gabe ez dagoela arterik. Kolektibo horren ingurumarian sortu da, beraz, Sei Sega, pulamentu handiko taldeetatik igarotako kideekin: Andoni de la Cruz eta Jangitz Larrañaga (Vulk, Cuero), Jon Salinas (Kotoi, Tatxers), Elena Nuñez (Serpiente, Aihotz, Kotoi) eta Camilo Tonon (S'AFFERRA AFFERRA).

Estetikarik ez da etikarik gabe. Punka da irudia, baina punka da jarrera. Autogestioa ta malaletxea, alegia, hortxe Sei Segaren zigilua. Ikusiko dugu zein bide egiten duten, baina ziur ez direla arituko horren modan dagoen

banketxeen eta edarien propagandaren zirkuluan. Anarkismo-artie moduko bat garatzeko aukera, mezu zuzenekin eta melodia zorrotzen dantzan, euskal eszenan geroz eta ohikoagoa den arte apolitikotik urrunduz.

Zeren zer esango dizut, zorientasunari kantatzeaz apur bat aspertuta gaude honezkero euskaldun batzuk. Ehunka, milaka, (milioika!) ikurrinek ez dutelako estaltzen Bilbo postindustrialaren miseria guztia. Bilboko euriak uxatu ditzala tristeziak, eta atera ditzala gure barruan dauden gorroto eta grinak dantzara. Ikuskizunaren gizar-tean bizitza aldarrikatzeko edo, eta batera eta bestera aritzeko “deskalabru bila”. ●



## Batean ala bestean, derrigor kalean

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Obra hau kalea hartu nahian sortu zuen Barsanti antzerki konpainiak. Izenburuak berak kale antzerkiari erreferentzia egiten diola interpreta daiteke, antzezlanak tratatzen duen gaiaren ondorioa, etxegabetzearena, adierazteaz gain. Batean ala bestean, derrigor, kalean.

Antzokietarako ez da egokia, aipatu bezala, espresuki kalean delako ikusgarria eta hori bera azpimarratu nahi izan dute txaloak jaso eta agurtu osteko hizketaldian. Obra honekin kale antzerki onenaren Max sarietan finalista izatea lortu zuten gaztelerazko bertsioarekin, eta Leioako 2018ko Umore azokan aipamen berezia jasotzea ere bai. Euskal Herrian hain ohikoa ez den genero honi utsita bi obra gehiago sortu dituzte gerora.

Begoña eta Marino etxebizitza horretara joan ziren ezkonberritan, duela 40 urte. Orain, etxea uztera behartuta daude, bankuak etxegabetze agindua helearazi baitie. Polizia atean dute eta nork bere modura egingo du erresistentzia. Marinok ez du etxea uzteko asmorik eta

Begoñak barruko guztia hartu nahi du, bankuari ezer ere ez uzteko.

Gai oso aktuala, soziala eta kritikarako eta eraldaketarako paregabea iruditzen zait, bai eta kale antzerkiaren lengoaiari egokitzekoa ere. Etxea eta balkoia bera erabiltzen dituzte eszenatoki gisa eta horrek aberastu egiten du lana, errealistagoa eta ikusgarriagoa bilakatuta. Darabilten altuerak joko handia ematen du eta horretarako erabiltzen dituzten elementuak –sukaldeko gailu elektrikoak ezin hobeto aukeratu dituzte–. Publikoko edozein posiziotatik ikusten da eta hori oso erabaki inteligentea da.

Kalera, beraz, ederki moldatu dira. Umorea erabili dute, elementu eta espazio ugari, pertsonaia bereziak... Estimulu asko egon daitezkeen eremu bat konkistatzea ez da erraza izaten eta horregatik etengabeko estimulu propioak sortu dituzte antzezlanean bertan, kanpora begiratzeko tarterik utzi gabe. Era berean, publikoarekin harremana ezinbestekoa da eta hori ere haien alde erabili dute pertsonai aktibo gisa tratatuz. Ikuslea manifestaria da, Marino eta Begoñaren alde dagoen ekin-

tzailea, etxegabetzea gelditzera hurbildu dena. Publikoaren parte hartzea bultzatzen dute, baita arazoaren parte bilakatu eta konplize bihurtu ere. Berrito ere, kale antzerkiaren eta kritika sozialaren helburuak bateratzen dituzte.

Antzezlanak primerako osagaiak ditu errezeta on baterako. Dena den, gordinik bazkaldu dudanaren sentsazioa dut. Gaia bera oinarria eta helburua ez denean, aitzakia eta haria baino ez, zaporea galtzen du. Une batean aipatzen dute semeak utzitako zorrak eraman dituela etxegabetzera, eta barre egitera bideratzen dute ikuslea. Konpartitzen dut umorearen aukera, baina horrek ez du gaia testuinguru gisa soilik erabiltzearen eta arazoa lausotzearen erantzukizunetik aldentzen. Etxebizitzaren arazoa desbideratu eta pertsona orok aterpea izateko dugun eskubidearen afera bazter uzten dute. Era berean, nostalgiak eta maitasunak berebiziko indarra hartzen dute eta garrantzitsua izan arren, arazotik aldentzen gaitu berriro, elkarrekiko aprezioak guztia gaindituko balu gisan. Helburu desberdinak ditugu akaso. ●

### KALE GORRIAN

#### BARSANTI ANTZERKI KONPAINIA


**AKTOREAK:** Juanjo Otero, Aritza Rodriguez eta Pako Revueltas. **ZUZENDARIA:** Pako Revueltas.

**NOIZ-NON:** Uztailaren 9an,  
Hondarribiako Arma plazan.





## Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:



**1.** Ikasketarako dirulaguntzak. / Berandu. **2.** Afaldu aditzaren infinitibo. / Gogoko ez zaiguna amore eman gabe eraman. **3.** Lepoaren atzeko alde, lepondo. **4.** Ikasten duena. **5.** Erabat bustita. / Trapezistak. **6.** Izan dadila. / Oroitzera behartu. **7.** Elena..., aktorea. / Abian. **8.** Zikindu. / Irudiak proiektatzen diren xafla.

### GOITIK BEHERA:

**1.** Jaurtigai txikia. / Informazio unitate. **2.** Letra izena. / Haren. **3. Arabako mendia (Argazkian).** **4.** Errenta, aloger. **5.** Gauza, kapaz. / Norbait erortzeko zorian dagoenean esaten den hitza. **6.** Itxura, taxu. / Gogoak eman. **7.** Auzo edo baserriren bat dagoen ibar txikia. **8.** Titiko. **9.** Seigarren musika nota. / Espiritu. **10.** Denbora bitarte aski labor. / Erakunde belikoa. **11.** Joan den gauean. **12.** Arto hitz-elkartetan. **13.** Automobil gidaridun. **14.** Zerbaiten kanpoko alde. **15.** Kinina ateratzen den zuhaitza.

## Esaera zaharra


KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak


HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Behartsu, pobre
- Jaurtiketa
- Jardun, eragon
- Egoki, erako
- Hitzarmena
- Nekatu
- Nekagarri
- Muturra
- Desiratu
- Urrats
- Omena, sona
- Sama, iduna
- Haragia




## Sudokua

ERRAZA




ZAILA




### EBAZPENAK

ATSOZITZA  
TOSAK ERE EZ DU BERE HARAGIRIK JATEN.



ANAGRAMAK  
TXIRO  
TIROA  
ARITU  
ARITU  
AIUTU  
ITUNA  
UNATU  
ASTUN  
PUNTA  
OPATU  
PAUSO  
OSPEA  
LEPOA  
OKELA

ZAILA



ERRAZA

ESKER-ESKUI: 1. BEKAK, BELU, 2. AFAL, JASAN, 3. LEPOGIN, 4. IKASLEA, 5. BLAI, AKROBATAK, 6. BEDI, OROITARRAZI, 7. IRURETA, MARTXAN, 8. TEIUTU, PANTAILA.  
GOITIK BEHERA: 1. BALA, BIT, 2. EFE, BERE, 3. KAPILDUI, 4. ALOKAIURU, 5. GAL, ET, 6. JAS, OTU, 7. BAILARA, 8. ESNEKO, 9. LA, ARIMA, 10. UNE, OTAN, 11. BART, 12. ARTA, 13. TAXI, 14. AZAL, 15. KINA.

# Maia Ansa

BATZUETAN 'GATA',  
BESTEETAN 'TANGANA'



## MAITAGARRIA BEZAIN ZAKARRA

Iruñeko Nafarriors roller derby taldea ezagutu zuenetik familiazat du Ansa. Pistan "maitagarri" bezain "zakar" jarduten duela dio. Gehienek, gehienetan, *Tangana* esaten diote; beste batzuek, aldiz, *Gata*. Hunkituta mintzo da derby-az: "Prozesu baten ondoren, babesleku handia izan den espazioari esker iritsi den identitatea da derby-a. Esfortzu eta lanaren ondoren, zentzu guztietan suposatzen du iraultza. Nire buruarekin eta gorputzarekin harremandu naizen moduarengatik *Tangana* deitzen didatenean oroitzen naiz nor naizen eta zer eman didan talde horrek".

## "Roller derby-a babes, ahalduntze eta elkartasun gunea da"

Duela bost urte baino gehiago hasi zen roller derby-an jokatzeko Maia Ansa (Gaintza, Iruñea, 1990). *Gata* eta *Tangana* izenagatik ezagutzen dute derby komunitatean. Iruñeko Nafarriors roller derby taldeko jokalaria da, eta "nahi duen bezalako izateko" espazio segurua dela dio. Dagoeneko patinak zintzilikatu dituzte, baina irailean martxan hasteko gogotsu dira: "Derby kulturaren denok gara komunitatea eta elkarlana beharrezkoa da".

OLAIA L. GARAIALDE JOSU SANTESTEBAN

### Zer da roller derby-a? Askotan azaldu behar izaten duzue?

Nahiz eta geroz eta ezagunagoa izan, agian komeni da azaltzea zer den: roller derby-a da quad patinetan jokatzeko den kontaktu handiko kirola. Jokaldi bakoitzean, talde bakoitzeko bost pertsona ateratzen dira pista, eta blokeoen bidez *jammer* [taldeko puntu egilea] deituriko jokalaria beste taldeko blokeatzaileek sortzen duten harresia pasa behar du. Bi taldeetako *jammer*-ak saiatu behar dira pasatzen, eta blokeatzaileak *jammer*-ak oztotzen.

### Zeren arabera aukeratzeko dira *jammer*-ak eta blokeatzaileak?

Hasieran, aurreiritziengatik, uste nuen *jammer*-ak ezaugarri jakin batzuk izan behar zituela: inor baino txikiagoa izan, argalagoa, finagoa, azkarragoa edo biziagoa... Beste taldeetan dauden erreferenteei esker ikusi nuen ez dela horrela, eta badaudela jokalaria handiak eta lodiak eta *jammer* gisa jokatzeko dutenak.

Azkenean, roller derby-an ohiko arauetatik kanpo dauden gorputzak ere ikusarazten dira.

### Kontaktuzko kirola izan arren, errespetuan oinarritua dago?

Esan ohi da roller derby-a "agresiboa" dela, baina ez dela "bortitza". Beste kirol jardueretan, aldiz, zenbait dinamiketan eta jokalarien arteko harremanetan ikus daiteke indarkeria, baina roller derby-an, nahiz eta eman daitezkeen egoera bortitzak, sustatzen dena errespetuan, elkarlanean eta laguntasunean oinarrituta dago.

### Komunitatea zarete?

Zenbait egoeratan tentsio uneak ematen dira jokoak hala eskatzen duelako, baina oso presente dago denok garelako komunitatea eta elkarlana beharrezkoa dela. Taldeen arteko elkartasuna dago, *amabixiak* izeneko figurak ditugu eta talde handiagoek txikiagoei laguntzen diete. Oso kirol minorizatua izanik, oso ohikoa izaten





“Hasieran gogorra izan zen patinatzen jakin gabe kontaktu handiko kirol batean aritzea”.

da beste talde bati jokalaria eskatzea edo jokalaria erreferenteak beste taldeetara joatea laguntzera. Taldeen artean sekulako harremana dago, eta askotan ez dakigu zein taldekoa den nor.

### **Elkarlana sustatzeko hirugarren denbora edo *after party*-a egiten duzue. Zertan datza?**

Jokalariei nolabaiteko aitortza egiten zaie; horretarako, sari banaketa egiten da eta hiru sari banatzen dira. Sariak ez zaizkie banatzen “hoberen” jokatu dutenei, baizik eta asko saiatu direnei edo lanketa handia egin duten jokalariei. Hau da, bateko edo besteko zailtasunak izan arren hor egon diren jokalariai saritzen dira.

Nire lehenengo partiduan blokeatzailer onenaren saria jaso nuen, eta ez nintzen onena izan, baina horrelako kontu sinbolikoek bidean izan ditzakegun arazoei aurre egiten laguntzen digute. Gainera, normalean, elkarrekin joan ohi gara afaltzera.

### **Nola iritsi zinen komunitate horren parte izatera?**

Kalean ikusi nuen kartel batek erakarri ninduen, eta esaten zutenez ez zela beharrezkoa patinatzen jakitea, probatzera animatu nintzen. Segituan ikusi nuen espazio interesgarria izan zitekeela. Hala ere, hasieran gogorra izan zen patinatzen jakin gabe kontaktu handiko kirol batean aritzea.

### **Hasi berrientzat *amabixia* izeneko erreferentziatzko pertsona daukazue. Zein da bere funtzioa?**

Saiatzen gara taldean norbait berria sartzen den bakoitzean erreferentziatzko pertsona bat esleitzen. Batzuetan ez da erraza talde berri batean beharrak adieraztea edota galderak egitea. Horrez gain, erreferentziatzko pertsonak izanik, proiektua aurrera atera eta taldea sostengatzeaz ere arduratzen da. Militantziatik asko duenez, batzuetan despistatu egiten gara.

### **Orduan, kirola izateaz gain, ekintza politikoa ere bada?**

Gutziz politikoa da; gorputzetik egiten den praktika politikoa da. Derby komunitatean espresuki adierazten da espa-

zio transfeminista eta queer-a dela edo queer pertsonen babesa ematen zaiela. Balore horiek oso presente daude egiten diren jarduera eta prozesu guztietan. Roller derbya babes, ahalduntze eta elkartzaren gunea da zalantzarik gabe.

### **Badu zerbait artetik?**

Oso propioa dauka queer izaera, eta aldi berean izaera sortzailea ere badu. Artearekin lotzen dut, agian ez formalki, baina gure taldeko gehienok artearekin lotura dugu izan ofizios edo izaez, eta hori ez da kasualitatea. Azkenean, iraultzearekin harremana duen espazio bat da.

### **Autogestioan oinarrituta dago. Nola finantzatzen duzue?**

Saiatzen gara *merchandising*-aren birtartez edo jarduera puntualekin dirua lortzen. Bestela, egunerokotasuneko kuota ordaintzen dugu eta horrekin gastuak ordaintzen ditugu. Oso xumeak gara: entrenatzen dugun lekua oso merkea da, prekariora ere bai. Bilatu nahi dugu oso garestia ez den espazio duinagoa. ●

# Igela Bermudako Triangeluan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**E**skaparatean ikusi eta ezin tentazioari eutsi. Poltsa bat, oiha-lezkoa. Raymond Queneauren *Exercices de style*-ren edizio frantsesaren azala imitatzen zuen, Gallimard argitaletxearen sail zuriko liburu guztiek daukaten estetika retroa, klasikoa, betierekoa: zaku hoberik gainontzeko trasteekin batera beti libururen bat gainean daraman norbaitentzat? Ez nuen asko espero handik gutxira liburu hori euskaraz emateko ausardia eduki zuen argitaletxeak –*Estilo ariketak*, Xabier Olarra itzultzaile– zabalduko zuen notizia. 34 urteren ondoren pertsiana jaitsiko duela adierazi zuen Igelak pasa den asteen. Gero, dakizueenez, Ereinek –jabeak– oharra publikatu zuen esanez Igelako langile bakarrari kontratua eten diola, baina “ahal duen guztia” egingo duela “proiektu editoriala aurrera ateratzeko”. Sortu den saltsan sartu gabe, imajinatu zer aurpegi geratu zitzaidan, euskal literaturaren zutabeetako baten editorea lanik eta soldatarik gabe geratu dela irakurri bitartean –besarkada bat, Lander–, *merchandising* frantximenta besotik zintzilik neramala.

Erridikulu pertsonalak alde batera utzita, goazen inporta duenera: gauza jakina da euskaraz internazionalismo literarioa ez dela aberasteko asmoz praktikatzeko –horretan beste internazionalismo guztien antzekoa da–, baina Igela pasatzen ari den ordu larri honek pentsamenduren bat probokatu behar luke irakurlearen konposizioaz. Seinalatu da, arrazoiz, gurean originalak beti hobeto saldu izan direla itzulpenak baino. Horren kausak, ordea, ilun samar ageri zaizkigu; eta kulpanteak bilatzera jotzen dugu, problema, nire ustez, begi-bistakoa den arren, testu artean pixka bat sudurra sartuz gero. Sar dezagun, bada:

“Ternik eta gure amak kontatu ohi zuten, aitak mendean hartzen ez



zuen ahotsaren tinbrearen haritik, egun batean, irakasleen ekitaldi batean, Unibertsitateko geletan bildurik zeudenean, amak galdetu ziola ahopeka aitari nola zuen izena beraiengandik pauso bakar batzuetara zegoen irakasle batek. «Nor den?», egin zuen oiha aitak, halako moduan ezen denek burua jiratu baitzuten hari begiratzeko. «Nor den? Esanen dizut nik nor den! Ergel bat totala!».

*Familiako lexikoa*, Natalia Ginzburg (Fernando Reyren itzulpena)

Bereziki “zaila” ez den itzulpen batean ere honelako paragrafo ugari dago, zeinaren lehenbiziko esaldia bezalakorik nekez aurkituko duzun gehien mugitzen diren gaur egungo euskarazko originaletan. Atzetik datorren menpeko ondorio-perpausari ere ihes egiten dio ia edozein idazle autoktonok, segika datorkion poliziaz izango balitz bezala. Badakizu: ez bilatu problemarik. Sintaxiarekin pixka bat jostatzen hasten bazara bereha-

la baitauzkazu, intentzio onez agian, “eske ez da ni ostias ulertzen” esaka –edo intentzio ez hain onez, “literatura elitista” deskalkifikatuz, hamaika korroskada entzunak gara–. Liburu berria idazten ari denak, hori aurreikusiz, egokitu dezake –kontzienteki edo ez– bere idazkera B2 mailara, dauzkagun tresnekin ez baitugu irakurle-masa jasoagorik produzitzen egun; baina amigo, itzulpenekin ezin da adaptazio sinplifikatzaile egin.

Testuaren konplexutasunak daukan inplikazio ekonomikoaren argitan, Igelaren argazkia askoz errazago errelatzen dela iruditzen zait: diglosia, hizkuntza politika, merkatua. Gure literaturaren Bermudako Triangelua. Eta nik uste, lehenbiziko faktorea bigarrenaren bitartez aldatzen ez den bitartean, bueltaren bat eman beharko diogula hirugarrenari, alegia, liburua merkantzia gisa ulertzeko daukagun joerari. Ez baita posible proiektu estrategikoak kolokan daudenean salmentadatu hotzetan bakarrik pentsatzea. ●



# Nextcloud

ZURE NEGOZIOAK BEHAR DUEN BULEGO BIRTUALA

Zure erakundea eraginkorragoa izatea bilatzen baduzu eta informazioa modu seguruan gordetzea lehenesten baduzu, Nextcloud zure soluzioa da.



FITXATEGIAK



EGUTEGIA



BIDEO DEIAK




TXATA




KONTAKTUA



APLIKAZIO GEHIAGO



Finantziatorik behar? Kit Digital diru-laguntza eskuratu ezazu.



# OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake  
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza  
ipuin-kontalari trebeenen  
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,  
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta  
batez ere, disfrutatzen eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**